



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko apirilaren 11

33. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak onetsitako zenbait foru aginduen babesean dirulaguntzak eskatu dituzten enpresei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, NA-6630 errepideko Azkoien-Funes zatia hobetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Murietako araztegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, arantza bifidoaren unitatea ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleko traumatologia pabiloiko langileen plantillari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Tuterako Atalaya zentroan ezgaitasun psikikoak dituzten pertsoneri laguntza emateko Agednarekin izenpetutako itunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Iruñeko Valle del Roncal zentroan ezgaitasun psikikoak dituzten pertsoneri laguntza emateko Agednarekin izenpetutako itunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Iruñeko Carmen Aldave zentroan egoitza/etxe modalitatean tokiak erreserbatzeko Aspace Fundazioarekin izenpetutako itunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Cordovillako Infanta Elena zentroan zerbitzu bat kudeatzeko Aspace Fundazioarekin izenpetutako itunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Mutiloabeitiko Adacen zentroan zerbitzu bat kudeatzeko Daño Cerebral Elkartearekin izenpetutako itunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, drogamenpekotasunen foru planaren aplikazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, odola emateko erabiltzen diren autobusei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Zainketa Intentsiboko Unitatean izandako inurri izurriteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Tuterako Ospitaleko Hemodialisia Unitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Plazaolaren garai bateko ibilbidea berrerabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- Galdera, zenbait zentrotan garun-perlesia duten pertsonentzako zerbitzu bat kudeatzeko Aspace Elkartea-ekin izenpetutako itunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuko aholkularitzaren eginkizunei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Senda Vivan inbertsio publikoak egiten jarraitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, zerbitzu publikoak bermatzeko departamentuen artean beharrezkoa den koordinazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Txinaren kontra futbol partida bat jokatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Nafarroan turismoa sustatzeko planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa izeneko programan euskarari emanen zaion tratamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Errioxako eta Nafarroako Tenaria operadorea saltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, Iberdrolaren balizko kapital-gehikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, errepide sarean gertatzen diren istripuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, hegoaldean ur gezatan bizi den *margaritifera auricularia* izeneko bi kuskudun moluskuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, bidezainen etxeak izenekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak onetsitako zenbait foru aginduen babesean dirulaguntzak eskatu dituzten enpresei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak Nafarroako Emakumearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak onetsitako zenbait foru aginduen babesean dirulaguntzak eskatu dituzten enpresei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Aurelia Lumbreras Iñigo andreak galdera egin du "Oinarrizko gizarte zerbitzuak" zenbait foru aginduren arabera dirulaguntzak eskatu zituzten enpresei buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. Zein dira 146/2005 Foru Aginduari jarraiki dirulaguntzak eskatu dituzten 12 enpresak?

146/2005 Foru Aginduaren bidez egindako deialdian ondoko eskabideak aurkeztu dira:

Zk.	Eskatzailea	Enpresa	Jarduera
1	Saiz Delgado, Elma	IMEL Consultoría jurídico tributaria	Aholkularitza juridikoa eta tributuei buruzkoa
2	Chorraud Aguirre, Eva	NEXO Diseño y Comunicación	Diseinua eta komunikazioa
3	Jimenez Catalan, Elena	Despacho Catalán Ramos	Lan eta kontabilitate zerbitzuak
4	Larraz Gil, Pilar	Pilar Larraz Gil	Analisi klinikoen laborategia
5	Sola López, Virginia	Virginia Sola López	Hortz klinika
6	Marín Arteaga, Marisa	Marisa Marín Arteaga	Ortodontzia
7	Oiz Zarranz, Marta	Peluquería Marta	Gizon eta emakumezkoentzako ile-apaindegia
8	Apezetxea Zabaleta, Ana Isabel	Ana Apezetxea Zabaleta	Gizon eta emakumezkoentzako ile-apaindegia
9	Aniz Aldasoro, Maite	Peluquería Jade	Gizon eta emakumezkoentzako ile-apaindegia
10	Machain Martiarena, Marta	Dokumentazioa falta da	Dokumentazioa falta da
11	León Corres, M ^a Victoria	Peluquería León	Gizon eta emakumezkoentzako ile-apaindegia
12	Moliner Corera, M ^a Teresa	Teresa Moliner Corera	Frutategia

2. Zein dira 147/2005 Foru Aginduari jarraiki 80 eskabide aurkeztu dituztenak?

147/2005 Foru Aginduaren bidez egindako deialdian ondoko 81 eskabide hauek aurkeztu dira:

Eskabide zk.	Eskatzailea		
1	Sagardoy Allo, Angela	40	Gorriz Salamanca, Cristina
2	Calatayud Alvarez, Ana	41	Lopez Nava, Sara
3	Aragón Iroiz, Arguiloain	42	Boadu, Comfort
4	García Marques, Begoña	43	Ballester Belcos, Carolina
5	Martínez Durandez, Ana María	44	Oña Pilicita, Silvana Maribel
6	Malón Bilbao, Saray	45	Lozano Cabrera, M ^a Ursula
7	Remiro Virto, Beatriz	46	Begoña Gonzalez Barajas
8	Vega Marturet, M ^a Dolores	47	Pereira Da Costa, M ^a Isabel
9	Gurrea Barricarte, Montserrat	48	Machain Martiarena, Marta
10	Tort Bori, Monica	49	Arce Miró, Joana
11	Morales Ocaña, M ^a José	50	García Astiz, Esperanza
12	Prieto Pérez, Susana	51	Oneca Agurruza, María
13	Garatea Aldaz, M ^a Encarnación	52	Lizaso Azcarate, María
14	Ripalda Vazquez, Victoria	53	Arrese Alvarez, Miren
15	Eguzkiza Echekoenea, Amaia	54	Urzaiz Fraile, Nieves
16	Gonzalez Larrea, Sonia	55	León Corres, M ^a Victoria
17	Duran Vinuales, Cristina	56	Catalán Adrián, Asunción
18	Bigas Berrozpe, Sylvia	57	Legarra Eguzquiza, Mercedes
19	Gamboa Pellejero, Aitziber	58	Palacios Velilla, M ^a Dolores
20	Setuain Chorraut, Katrin	59	Berengaña Ibero, Mirentxu
21	Aznarez Alvarez, María	60	Cárcamo Bravo, Susana
22	Oiffa, Zineb	61	López Aramendia, Diana
23	Antón Ramirez, Susana	62	Carricas Torres, Ana
24	Martine Lenderink, Lourine	63	Torres Zuleta, Edyluz
25	López Jimenez, M ^a Carmen	64	Lerga Garayoa, Raquel
26	Sierra Guillén Vanesa	65	Aniz Aldasoro, Maite
27	Zabaleta Zabaleta, María	66	Bernal Rodriguez, Sara
28	Iparragirre Perurena, Ainhoa	67	López Sarasola, M ^a Lourdes
29	Flores Herrera, Rocio	68	Cerezo Rios, M ^a José
30	Delgado Olivera, Zulema	69	Otero Fernández, Agustina Lucia
31	Ortega Marcos, María	70	Mendizabal Allika, Itxaso
32	Ruiz Abascal, Marta	71	Fraisoli Novoa, Ainoa
33	Arbeloa Roch, María Isabel	72	García Correa, Olga Maritza
34	Crespo Sarasa, Cristina	73	Ayucar Berruete, Nuria
35	Garrues Iñiguez, Ana Isabel	74	Arizala Lacalle, Edurne
36	Aranaz Hernández, Idoya	75	Nazabal Regueira, Itziar
37	Ripalda Unciti, Amaya	76	Urteaga Arrizabalaga, Jaione
38	Arroniz Marín, Ainoa	77	Lopez Subiza, Raquel
39	Fernandez Llodio, Idoya	78	Prieto, Edurne
		79	Salinas Gomez, Aranzazu
		80	Yanci López, Cristina
		81	Ochagavía Pinillos Rosario

3. Zein dira 148/2005 Foru Aginduari jarraiki 4 eskabide aurkeztu dituztenak?

148/2005 Foru Aginduaren bidez egindako deialdian ondoko eskabideak aurkeztu dira:

Eskabide zk.	Eskatzailea
1	Miguel Alfageme, M ^a Sagrario
2	Aniz Aldasoro, Maite
3	Arteaga Veliz, Lucitania
4	Campos Rodríguez, Mónica

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 23an.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, NA-6630 errepidetako Azkoien-Funes zatia hobetzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak NA-6630 errepidetako Azkoien-Funes zatia hobetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Luis Izco Biarge jaunak galdera egin du NA-6630 errepidetako Azkoien-Funes bitarteko tartea hobetzeari buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

Galdera:

Denok dakigu NA-6630 eskualdetako errepedea hondaturik dagoela Azkoien-Funes bitarteko.

Nafarroako Gobernuak asmorik al du errepede hori hobetzeko behar diren lanak egiteko? Aurrez

ikusitako lanak noiz hasi eta amaituko diren adierazi.

Erantzuna:

2002-2009 urteetarako bigarren errepede plan zuzendarian aurreikusita dagoenari jarraituz, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak NA-6630 errepedearen Azkoien-Funes bitarteko tartea hobetzeko proiektuaren garapena bultzatuko du, aipatu udalarekin egindako hitzarmenaren bidez.

Gaur den egunean, proiektua idatzita dago. Hitzarmena finantzatzeko baldintzak Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eta udalak adostu zituzten joan den azaroaren 15ean burututako bileran

Bi erakunderen helburua da obren lizitazioa 2006ko hasieran tramitatzea, hauek hamar hilabete epean egin daitezten.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 23an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Murietako araztegiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak Murietako araztegiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak galdera egin du Murietako araztegiari buruz. Hona hemen Toki Administrazioari kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko azaroaren 2an egindako bilkuran, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak Murietako araztegiari buruz egindako galdera tramitera onartu zen, eta Nafarroako Gobernuo Toki Administrazioari Departamentuari idatzizko erantzuna eskatu zitzaion.

1. 1. Arazoak daude NILSaren eta Murietako Udalaren artean, bai ala ez?

Antzin, Mendilibarri, Legaria, Murieta eta Abai-gar herrietako hondakin-urak arazteko asmoz egiten ari den "E.D.A.R. Ega ibarra" izeneko proiektuaren sustapenean elkarlanean ari dira Jurrmendiko Mankomunitatea, arlo horretako entitate eskuduna herri horietako batzuetan, NILSA sozietate publikoa, Nafarroako ibaien sane-

amendurako plan zuzendaria kudeatzen duena, eta proiektuaren onuradun diren toki entitateak. Testuinguru horretan, E.D.A.R delakoaren balizko kokalekuari dagokionez, hamar aukera desberdin aztertu dira, eta azkenik, behin betiko erabakia hartu da 2005eko azaroaren 8an Murietako Udaleko Osoko Bilkurak berretsi zuena.

2. Arazo horiek bideratu al ziren nik egindako aurreko galderaren ondorioz?

Nilsa sozietate publikoa, Jurrmendiko Mankomunitatea eta proiektuaren onuradun diren toki entitateen arteko elkarlana etengabea izan da, eta Parlamentuak gai honen inguruan eginiko jardunak ez du eragin adierazgarririk izan elkarlan horretan.

Duela hilabete gutxi iragarri ziren exekuzio epeei eusten zaie? Hala bada, zein dira ondorioak?

2005eko ekainaren 9an Parlamentuaren Osoko Bilkuran azaldu zenez, araztegi hori 2005-2008 aldiaren bukaeran finantzatuko da. Hala ere, behin betiko kokapena aukeratu denez, aipatu finantzaketaren aurreikuspena gorabehera, proiektua 2006ko lehen seihilekoan sustatu ahal izanen da eta 2007ko lehen hiruhilekoan instalazioa operatiboa egon ahal izanen da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroan

Toki Administrazioari kontseilari eta Nafarroako Gobernuo eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, arantza bifidoaren unitatea ezartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak arantza bifidoaren unitatea ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du arantza bifidoaren unitatea sortzeari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Bideko Ama Birjina Ospitaleko Kirurgia Pediatrikoaren Zerbitzuaren bidez ematen zaie osasun laguntza arantza bifidoaren ondorioz arazoak dituzten pertsoneri.

Bertan ematen den laguntza kalitatezkoa da, eta ez da mugatzen alderdi mediko-kirurgikora soilik; aldiz, Nafarroako Arantza Bifidoaren Elkarteari etengabeko laguntza ematen dio dibulgazioaren arloan.

Gaur egun ematen den laguntza ikusirik, azterzen ari gara epe ertain edo luzera arantza bifidoaren unitate bat sortzea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcelly

Galdera, Nafarroako Ospitaleko traumatologia pabiloiko langileen plantillari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak Nafarroako Ospitaleko traumatologia pabiloiko langileen plantillari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Miren Egaña Descarga andreak galdera egin du astean zehar Nafarroako Ospitaleko traumatologiako pabiloiko OLT eta erizaintzako laguntzaileen plantilla osoari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Ospitaleko H-2 pabiloian (traumatologia zerbitzua) 36 ohe dago.

Ohe hauen okupazio-indizea 2005. urtean:

URTARRILA	OTSAILA	MARTXOA	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA
93,19	95,04	93,55	92,8	95,16	92,59	88,08	92,26	89,72

– Erizain eta erizaintzako laguntzaileen plantilla:

OLT-EDU kategoria

Plantilla, guztira	Finkoak	Aldi baterako langileak (1)
15	11	4

(1) Bost administrazio-kontratu lanpostu hutsen kontura eta egun osoz (urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko 29.1 b) artikulua)

Administrazio-kontratu bat, lanaldi partzialekoa, larunbat, igande eta jai egunetan aritzeko lanpostu huts baten kontura. (urriaren 20ko 11/1002 Foru Legeko 29.1 b) artikulua)

Bi egiturazko kontratu, lanaldi partzialekoak, igandetan aritzeko. (urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko 29.1 c) artikulua)

Erizaintzako laguntzaileen kategoria

Plantilla, guztira	Finkoak	Aldi baterako langileak
16	7	9

(2) Bost administrazio-kontratu, lanpostu hutsen kontura eta egun osoz (urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko 29.1 b) artikulua)

Administrazio-kontratu bat, lanaldi partzialekoa, larunbat, igande eta jai egunetan aritzeko lanpostu huts baten kontura (urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko 29.1 b) artikulua)

Bi egiturazko kontratu, lanaldi partzialekoak, igandetan aritzeko. (urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeko 29.1 c) artikulua)

– Lanegun, larunbat, igande eta jaiegunetako presentzia:

OLT-EDU kategoria

Presentziak	Astelehenetik-			
	ostiralera	Larunbatetan	Igandetan	Jaiegunetan
Goizez	3	3	3	3
Arratsaldez	3	2	2	2
Gauetz	2	2	2	2

Erizaintzako laguntzaileen kategoria

Presentziak	Astelehenetik-			
	ostiralera	Larunbatetan	Igandetan	Jaiegunetan
Goizez	¾ txandakako asteetan	3	3	3
	2/3 txandakako asteetan	2	2	2
gauetz	2	2	2	2

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Tuterako Atalaya zentroan ezgaitasun psikikoak dituzten pertsonen laguntza emateko Agednarekin izenpetutako itunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Tuterako Atalaya zentroan ezgaitasun psikikoak dituzten pertsonen laguntza emateko Agednarekin izenpetutako itunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Tuterako Atalaya

zentroan ezgaitasun psikiko larriak dituztenak laguntzeko Agedna elkartearekin sinaturiko itunari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

Zenbat toki dago beterik eguneko zentroan eta egoitzan? Zenbatekoa izan da okupazioa, ehunekotan, 2004 eta 2005eko seihilekoetan, modalitate bakoitzean? Adierazi egoitzako pertsonen adinak.

Egoitzan betetako tokiak 26 dira eta eguneko zentroan 10. Beraz, ondoan adierazitakoa da okupazioa ehunekotan:

– 2004ko lehen seihilekoa: egoitza % 99,60; eguneko zentroa % 43,54

– 2004ko bigarren seihilekoa: egoitza % 100; eguneko zentroa % 43,14

– 2005ko lehen sei hilekoa: Egoitza % 100; eguneko zentroa % 46,49

Erabiltzaileen adinari dagokionez, hona hemen zehazturik:

Egoitza: 38; 35; 44; 43; 39; 36; 28; 34; 39; 36; 50; 45; 46; 52; 42; 54; 54; 46; 45; 25; 49; 38; 52; 59; 61; 24.

Eguneko zentroa: 22; 25; 27; 22; 37; 38; 21; 22; 21; 21.

Zer plantillak ematen ditu zerbitzuak egoitzan eta eguneko zentroan? Adierazi haietako bakoitzaren lanaldia, bai lan egunetan bai jai egunetan, zentroz zentro.

Hona Atalaya zentroko plantilla ondoko taulan zehazturik:

Langileak	Arreta emateko lanaldia	Lanaldia asteko orduak
Zaindariak	14 8 (% 43'6) 4 (% 87)	39 17 34
Etxeko zerbitzuko langileak	4 2 (% 61'5)	39 27,3 eta 21,2
Atezaina	1	39
Zuzendari/psikologoa	1	39
Administraria	1	39
Medikua	% 50	19,5
Gizarte langilea	% 50	19,5
Fisioterapeuta	% 50	19,5
Olt-edu	% 50	20
Logopeda	50%	19,5
Sukaldari	2 (% 59)	21,1 eta 24,2
Kordinatzaile teknikoa	1	39
Hezitzailea	1	39
Kirol eta aisialdirako hezitzaileak	2 (% 51)	20 eta 20
Mandataria	1 (% 64)	27,9
Sukaldeburua	1	39
Administrari laguntzailea	1	39

Klausula teknikoen orriko I eranskinean agertzen da plantilla proposamena, asteko 39 orduko lanaldiarekin.

Zenbatekoa da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zentro eta modalitate bakoitzean toki bakoitzeko itundurik daukan hileko prezioa?

Atalaya zentroan, itundutako toki bakoitzeko hileko modulua 3623,50 eurokoa da egoitzan eta 1382,75 eurokoa eguneko zentroan.

Zentro horietako erabiltzaileak tarifarik ordaintzen al du? Zehaztu zenbat ordaintzen den eta zer kontzeptutan. Hala bada, itundutako prezioetik kentzen da?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeko buruaren otsailaren 28ko 1/2005 Ebazpenari jarraikiz, zeinaren bidez erakunde autonomo horrek zuzenean ala zeharka kudeatzen dituen zerbitzuen tarifak, salbuespenak eta hobariak aldatzen diren, Atalaya zentroaren erabiltzaileek ordaindu behar duten tarifa honakoa da: 966,30 euro egoitzan eta 121,26 euro eguneko zentroan.

Beraz, ebazpen horretan ezarritakoaren arabera, egoitzaren erabiltzaileek hileko per cápita errentaren ehuneko 90 ordaindu behar dute, beti ere tarifaren muga izanik. Hala ere, aipatu ehuneko hori aplikatu ondoren, erabiltzaileak ez du inolaz ere eskura izanen 1486,61 euro baino gutxiago, urte osoa kontuan hartuta.

Eguneko zentroaren erabiltzaileei dagokienez, ezarritako tarifa aplikatu ondoren, ez dute inolaz ere eskura izanen 1486,61 euro baino gutxiago, urte osoa kontuan hartuta, .

Irizpide horien arabera, pertsona bakoitzak tarifa kontzeptuan ordaindu behar duen kopurua, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak entitatearekin itundu duen prezio edo hileko modulutik kentzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Iruñeko Valle del Roncal zentroan ezgaitasun psikikoak dituzten pertsonen laguntza emateko Agednarekin izenpetutako itunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Iruñeko Valle del Roncal zentroan ezgaitasun psikikoak dituzten pertsonen laguntza emateko Agednarekin izenpetutako itunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Iruñeko Valle del Roncal eta Burlatako Santa Maria zentroetan ezgaitasun psikiko larriak dituztenak laguntzeko Agedna elkartearekin sinaturiko itunari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

1. Zenbat toki dago beterik eguneko zentroan eta egoitzan? Zenbatekoa izan da okupazioa, ehunekotan, 2004 eta 2005eko seihilekoetan, modalitate eta zentro bakoitzean? Adierazi egoitzako pertsonen adinak.

Valle del Roncal zentroan egoitzako 120 postu eta eguneko zentroko 10 daude beteta.

Santa Maria zentroan, berriz, egoitzako 29 postu eta eguneko zentroko 6 daude beteta.

Horren ondorioz, okupazioa ehunekotan, honako hau da:

– Valle del Roncal

- 2004ko lehen seihilekoa: egoitza % 99,43; eguneko zentroa % 98,35

- 2004ko bigarren seihilekoa: egoitza % 99,62; eguneko zentroa % 100

- 2005ko lehen seihilekoa: egoitza % 99,06; eguneko zentroa % 100

– Santa Maria

- 2004ko lehen seihilekoa: egoitza % 97,90; eguneko zentroa % 75,33

- 2004ko bigarren seihilekoa: egoitza % 100; eguneko zentroa % 75,03

- 2005ko lehen seihilekoa: egoitza % 98,55; eguneko zentroa % 70,99

Galderan eskatzen den erabiltzaileen adinari dagokionez, hona hemen zehazturik:

– Valle del Roncal

- Egoitza: 57; 56; 69; 75; 59; 58; 33; 41; 48; 32; 26; 48; 36; 56; 29; 72; 52; 79; 55; 63; 51; 58; 72; 28; 70; 53; 33; 30; 34; 60; 32; 50; 34; 43; 57; 59; 32; 51; 67; 27; 60; 31; 33; 62; 30; 37; 76; 46; 54; 75; 38; 59; 69; 53; 49; 29; 75; 60; 57; 60; 42; 32; 62; 46; 59; 55; 65; 51; 41; 62; 60; 64; 37; 35; 40; 53; 32; 52; 26; 33; 34; 58; 34; 47; 71; 63; 47; 47; 32; 43; 42; 36; 55; 69; 27; 82; 52; 30; 60; 47; 66; 53; 30; 30; 55; 76; 73; 73; 62; 61; 31; 64; 78; 27; 30; 69; 31.

- Eguneko laguntza: 30; 54; 31; 33; 24; 59; 33; 26; 29; 30;

– Santa Maria

- Egoitza: 24; 11; 28; 20; 31; 16; 23; 30; 23; 23; 16; 24; 16; 34; 29; 27; 24; 13; 25; 40; 24; 14; 19; 20; 26; 28; 22; 12; 10.

- Eguneko laguntza: 22; 24; 24; 13; 7; 24.

2. Zer plantillak ematen ditu zerbitzuak egoitzan eta eguneko zentroan? Adierazi haietako bakoitzaren lanaldia, bai lan egunetan bai jai egunetan, zentroz zentro.

Valle del Roncal zentroko langileak ondoko laukian agertzen direnak dira:

Langileak	Arreta emateko lanaldia
Zuzendaritza	1
Fisioterapeuta	1
Psikologoa	2
OLT-EDU	2'5
Sendagilea	1'5
Mantentze-lanak	1
Aisialdirako koordinatzailea	1 (65%)
Zaintzaileak	56 lanegunetan 28 asteburuko zaintzaile 12 gauekoak 1 (% 85) errefortzukoa

Arropa zuriaren arduraduna	1
	2 (% 50)
	1 (% 46)
Gizarte langilea	1
Lan-terapeuta	2'5
Administrariak	2

Aurreko taulan ituna arautzen duen klausula teknikoan orrian langileei buruz ezartzen diren eskakizunak jasotzen dira. Lanaldiaren iraupena izanen da zentroan aplikatzekoak diren enpresa-itunek eta hitzarmen kolektiboek une bakoitzean ezartzen dutena.

Zaintzaile kategoriarako, klausula teknikoan pleguak bereziki jasotzen du lanaldiak izan beharreko ordu kopurua eta ordu horiek nola banatu behar diren, hemen azaltzen den moduan:

“.. eguneko ordutegian zaintzaileek bete beharreko orduak...”

lanegunetan: 83.297 ordu (14 ordu egunean)

Larunbat eta jaiegunetan: 32.565 ordu (14 ordu egunean)

“.. gaueko ordutegian zaintzaileek bete beharreko orduak...” 18.250 ordu (10 ordu egunean)”

Jantokiko eta garbiketako zerbitzuak kanpoan azpikontrataturik daude.

Bestalde, Santa Maria zentroko langilean ondoko laukian azaltzen direnak dira:

Langileak	Arreta emateko lanaldia
Zaintzaileak	15 lanegunetan 12 asteburuko zaintzaile 6 gauekoak
Etxeko zerbitzuko langileak	% 50
Mantentze-lanak	1
Administraria	1
Medikua	% 50
Gizarte langilea	% 50
Fisioterapeuta	% 50
Psikologoa	1
OLT-EDU	1'5
Lan-terapeuta	% 50
Garbategia	1
Gobernanta	1
Sukalde laguntzailea	1
Sukaldaria	1
Garbiketako langileak	6

Aurreko taulan ituna arautzen duen klausula teknikoan pleguak ezartzen diren langileei buruzko eskakizunak jasotzen dira. Lanaldiaren iraupena izanen da zentroan aplikagarriak diren enpresa-itunek eta hitzarmen kolektiboek une bakoitzean ezartzen dutena.

Zaintzaile kategoriarako, klausula teknikoan pleguak bereziki jasotzen du lanaldiak izan beharreko ordu kopurua eta ordu horiek nola banatu behar diren, hemen azaltzen den moduan:

“.. eguneko ordutegian zaintzaileek bete beharreko orduak...”

Lanegunetan: 21.377 ordu (14 ordu egunean).

Larunbat eta jaiegunetan: 7.515 ordu (14 ordu egunean)

“.. gaueko ordutegian zaintzaileek bete beharreko orduak...” 7.300 ordu (10 ordu egunean).

Eskolatzeko adinean dauden adingabeentzat, Hezkuntza Departamentuak berariazko langileak jartzen ditu.

3. Zenbatekoa da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak toki bakoitzeko itundurik daukan hileko prezioa, zentro eta modalitate bakoitzean?

Valle del Roncal zentroan, itundutako toki bakoitzeko hileko modulua 2.427,41 eurokoa da egoitzan eta 1.385,80 eurokoa eguneko zentroan.

Burlatako Santa Maria zentroan modulua 3.099,91 eurokoa da egoitzan eta 1.940,99 eurokoa eguneko zentroan.

4. Zentro horietako erabiltzaileak tarifarik ordaintzen al du? Zehaztu zenbat ordaintzen den eta zer kontzeptutan. Hala bada, itundutako prezioak kentzen da?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeko buruaren otsailaren 28ko 1/2005 Ebazpenari jarraikiz, zeinaren bidez erakunde autonomo horrek zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen zerbitzuen tarifak, salbuespenak eta hobariak aldatzen diren, bi zentro horien erabiltzaileek ordaindu behar dituzten tarifak ondokoak dira:

- Egoitza: 966,30 € helduek eta 202,29 € adingabeek.

- Eguneko zentroa: 121,26 € helduek eta 68,59 € adingabeek.

Beraz, ebazpen horretan ezarritakoaren arabera, egoitzaren 18 urtetik gorako erabiltzaileek hileko per cápita errentaren ehuneko 90 ordaindu behar dute, beti ere tarifaren muga izanik. Hala ere, aipatu ehuneko hori aplikatu ondoren, erabil-

tzaileak ez du inolaz ere eskura izanen 1486,61 euro baino gutxiago, urte osoa kontuan hartuta.

Halaber, 18 urtez beherakoak ondoko hobariak izanen dituzte, integratuta dauden familiaren per capita errentaren arabera, taula honetan azaltzen den moduan:

UEPC	IPREMaren %	Euroak hilabeteko
6.577,20€	% 100	202,29 €
5.919,48 eurotik gora	% 90	182,06 €
5261,76 eurotik gora	% 80	161,83 €
4.604,04 eurotik gora	% 70	141,60 €
3.946,32 eurotik gora	% 60	121,37 €
3.288,60 eurotik gora	% 50	101,14 €
1.973, 16 eurotik gora	% 30	60,68 €
1.973, 16 euro arte	% 0	0

Eguneko zentroaren erabiltzaileei dagokienez, ezarritako tarifa aplikatu ondoren, ez dute inolaz ere eskura izanen 1959,82 euro baino gutxiago, urte osoa kontuan hartuta. Bestalde, 18 urtez beherakoak tarifa ordaintzetik salbuetsita egonen dira, integratuta dauden familiaren urteko errenta per capita Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) % 70era ez bada iristen.

Irizpide horien arabera, pertsona bakoitzak tarifa kontzeptuan ordaindu behar duen zenbatekoa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak entitatearekin itundu duen prezio edo hileko modulitik kentzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 24an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Iruñeko Carmen Aldave zentroan egoitza/etxe modalitatean tokiak erreserbatzeko Aspace Fundazioarekin izenpetutako itunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Iruñeko Carmen Aldave zentroan egoitza/etxe modalitatean tokiak erreserbatzeko Aspace Fundazioarekin izenpetutako itunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Iruñeko Carmen Aldave zentroan "egoitza/etxe" modalitatean toki erreserbatzeko Aspace Navarra fundazioarekin sinaturiko itunari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

Egindako galderari erantzun baino lehen, adierazi behar dut Iruñeko Carmen Aldave zentroa, zehazki, elbarriak zaintzeko zentro bat dela. Hori dela eta, funtzionatzeko baimena du, eta aipatutako zentroan 40 toki erreserbatu eta betetzeko 2004ko irailaren 15ean Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak eta Aspace Navarra Residencial fundazioak sinaturiko ituna bat dator halako zentroek dituzten ezaugarriekin.

Zenbat toki dago beterik zentro horretan? Zenbatekoa izan da okupazioa hiruhilekoetan? Adierazi egoitzako pertsonen adinak.

Itunduta dauden toki guztiak, 40 alegia, beterik daude; beraz, 2005. urtean okupazioa ehuneko 100 izan da.

Erabiltzaileen adinari dagokionez, hona hemen zehazturik: 44; 42; 33; 23; 20; 19; 34; 54; 38; 20; 25; 32; 30; 17; 44; 51; 19; 35; 20; 30; 49; 21; 26; 30; 53; 31; 33; 23; 36; 32; 51; 48; 38; 37; 19; 37; 31; 18; 36; 20.

Egoitzan daudenez gain, beste pertsona batzuk ere artatzen al dituzte? Hala bada, adierazi

zer programa egiten diren eta zer zentrotatik joaten diren pertsona horiek.

Erantzun hauen sarreran aipatuenez, Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuak elbarriak zaintzeko zentroan tokiak erreserbatu eta betetzeko itun bat sinatu zuen, eta horrek dakar egunean 24 orduz egoitzan laguntza ematea, baina itun horrek ez du inolako loturarik zentroan egin daitezkeen bestelako jarduerekin.

Zer plantillak ematen ditu zerbitzuak egoitza horretan? Adierazi haietako bakoitzaren lanaldia, bai lan egunetan bai jai egunetan.

Hona Carmen Aldave zentroko plantilla ondoko taulan zehazturik:

Langileak	Arreta emateko lanaldia
Arduraduna	1
Gizarte langilea	1
Fisioterapeuta	1
Erizaina	1 (% 0'87)
Lan-terapeuta	1 (% 0'50)
Logopeda	1 (% 0'50)
Sendagilea	1 (% 0'50)
Administrazioa	1
Harreralekua	1 (% 0'50)
Tailerreko monitorea	2
Zaintzaileak	24 (% 100) 1 (2 ordu).
Garbiketako langileak	4 (% 100) 3 (5 ordu jaiegunetan)
Zerbitzu orokorrak	1

Aurreko taulak klausula teknikoaren orrietan ezartzen diren langileei buruzko eskakizunak biltzen ditu. Orri horietan, langile kopurua eta hauek izan behar duten lanaldia baino ez da aipatzen. Hortaz, lanaldiaren iraupena izanen da aplikagarriak diren hitzarmen kolektiboek eta enpresa itunek une bakoitzean ezartzen dutena.

Zaintzaileei dagokienez, hauek lan egin behar dute asteleheneetik igandera bitarte eta goizeko, arratsaldeko eta gaueko txandatan, ondoko ordutegiarekin:

Goizez: 8:00etatik 15:00etara.

Arratsaldez: 15:00etatik 22:00etara.

Gauetz: 22:00etatik 8:00etara.

Horretaz gain, zaintzaile bat gehiago egonen da egunero bi orduz

Psikologia/psikiatria, arropa garbiketa eta jantoki zerbitzuak kanpoan azpikontrataturik daude.

Zenbatekoa da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak toki bakoitzeko itundurik daukan hileko prezioa?

Carmen Aldave zentroan, itundutako toki bakoitzeko hileko modulua 379,72 eurokoa da.

Zentro horretako erabiltzaileak tarifarik ordaintzen al du? Zehaztu zenbat ordaintzen den eta zer kontzeptutan. Hala bada, itundutako prezioetik kentzen da?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeko buruaren otsailaren 28ko 1/2005 Ebazpenari jarraikiz, zeinaren bidez erakunde autonomo horrek zuzenean ala zeharka kudeatzen dituen zerbitzuen tarifak, salbuespenak eta hobariak aldatzen diren, Carmen Aldave zentroaren erabiltzaileek ordaindu behar duten tarifa 1114,96 eurokoa da.

Beraz, ebazpen horretan ezarritakoaren arabera, zerbitzu honen erabiltzaileek hileko per cápita errentaren ehuneko 90 ordaindu behar dute, beti ere tarifaren muga izanik. Hala ere, aipatu kopuru hori aplikatu ondoren, erabiltzaileak ez du inolaz ere eskura izanen 1486,61 euro baino gutxiago urte osoa kontuan hartuta.

Irizpide horien arabera, pertsona bakoitzak tarifa kontzeptuan ordaindu behar duen kopurua, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak entitatearekin itundu duen prezio edo hileko modulutik kentzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Cordovillako Infanta Elena zentroan zerbitzu bat kudeatzeko Aspace Fundazioarekin izenpetutako itunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Cordovillako Infanta Elena zentroan zerbitzu bat kudeatzeko Aspace Fundazioarekin izenpetutako itunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Cordovillako Infanta Elena zentroa kudeatzeko Aspace fundazioarekin sinaturiko itunari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

Egindako galderari erantzun baino lehen, adierazi behar dut 2005eko azaroaren 18an Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak Infanta Elena zentroa kudeatzeko itun berri bat izenpetu duela Aspace Navarra fundazioarekin; izan ere, fundazio horri adjudikatu zitzaion horretarako kontratua, beharrezkoa zen lizitazio prozesua tramitatu ondoren. Beraz, erantzun honetan agertzen diren plantilla eta ordaindutako moduluari buruzko datuak itun berri horren arabera dira.

Zenbat toki dago beterik eguneko zentroan eta egoitzan? Zenbatekoa izan da okupazioa, ehunekoetan, 2004 eta 2005eko seihilekoetan, modalitate bakoitzean? Adierazi egoitzako pertsonen adinak.

Egoitzan, betetako tokiak 70 dira eta eguneko zentroan, 9. Beraz, ondoan adierazitakoa da okupazioa ehunekoetan:

- 2004ko lehen seihilekoa: egoitza % 98,71; eguneko zentroa % 89,29

- 2004ko bigarren seihilekoa: egoitza % 98,42; eguneko zentroa % 73,60

- 2005ko lehen seihilekoa: egoitza % 98,15; eguneko zentroa % 64,36

Erabiltzaileen adinari dagokionez, hona hemen zehazturik:

Egoitza:

38; 57; 50; 60; 62; 65; 46; 75; 36; 49; 60; 51; 50; 57; 39; 34; 46; 52; 59; 61; 76; 55; 72; 66; 58; 73; 30; 42; 71; 58; 41; 72; 45; 51; 53; 63; 40; 50; 67; 60; 78; 58; 38; 61; 50; 70; 55; 57; 41; 47; 34; 63; 49; 41; 91; ; 42; 59; 61; 57; 35; 42; 41; 78; 41; 36; 65; 57; 38; 57.

Eguneko zentroa:

39; 55; 56; 76; 64; 58; 54; 45; 75.

Zer plantillak ematen ditu zerbitzuak egoitzan eta eguneko zentroan? Adierazi haietako bakoitzaren lanaldia, bai lan egunetan bai jai egunetan, zentroz zentro.

Hona Infanta Elena zentroko plantilla ondoko taulan zehazturik:

Langileak	Arreta emateko lanaldia	Urteko orduak guztira
Zaintzaileak	(1.512,4 h.) erabiltzaileko	87.060
Monitoreak	(166,41 h.) erabiltzaileko	5.260
Garbiketa	(509 h.) erabiltzaileko	25.550
Lan-terapeuta	Lanaldi 1	1.672
Fisioterapeuta	2 lanaldi	3.344
Fisioterapia laguntzailea fisioterapia	2 lanaldi	3.303'8
Neuropsikologoa	lanaldi 1	1.672
Logopeda	0,5 lanaldi	837
Gizarte langilea	lanaldi 1	1.672
Zuzendaria	lanaldi 1	1.672
Gobernanta	lanaldi 1	1.672
Administrazioa	lanaldi 1	1.672
Harreralekua	3,05 lanaldi	5.110
Sendagilea	lanaldi 1	1.672
Mantentze-lanak	2,3 lanaldi	3.864
Erizainak	160 h. erabiltzaileko	11.200
Ile-apantzailea		312 h

Zenbatekoa da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zentro eta modalitate bakoitzean toki bakoitzeko itundurik daukan hileko prezioa?

Infanta Elena zentroan, itundutako toki bakoitzeko hileko modulua 3.653,13 eurokoa da egoitzan, eta 1.623,59 eurokoa eguneko zentroan.

Zentro horietako erabiltzaileak tarifarik ordaintzen al du? Zehaztu zenbat ordaintzen den eta zer kontzeptutan. Hala bada, itundutako prezioetik kentzen da?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeko buruaren otsailaren 28ko 1/2005 Ebazpenari jarraikiz, zeinaren bidez erakunde autonomo horrek zuzenean ala zeharka kudeatzen dituen zerbitzuen tarifak, salbuespenak eta hobariak aldatzen diren, Infanta Elena zentroaren erabiltzaileek ordaindu behar duten tarifa 1.114,96 eurokoa da egoitzan eta 121,26 eurokoa eguneko zentroan.

Beraz, ebazpen horretan ezarritakoaren arabera, egoitzaren erabiltzaileek hileko per cápita

errentaren ehuneko 90 ordaindu behar dute, beti ere tarifaren muga izanik. Hala ere, aipatu kopuru hori aplikatu ondoren erabiltzaileak ez du inolaz ere eskura izanen 1486,61 euro baino gutxiago urte osoa kontuan hartuta.

Eguneko zentroaren erabiltzaileei dagokienez, ezarritako tarifa aplikatu ondoren ez dute inolaz ere eskura izanen 1959,82 euro baino gutxiago urte osoa kontuan hartuta.

Irizpide horien arabera, pertsona bakoitzak tarifa kontzeptuan ordaindu behar duen kopurua, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak entitatearekin itundu duen prezio edo hileko modulutik kentzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Mutiloabeitiko Adacen zentroan zerbitzu bat kudeatzeko Daño Cerebral Elkartearekin izenpetutako itunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Mutiloabeitiko Adacen zentroan zerbitzu bat kudeatzeko Daño Cerebral Elkartearekin izenpetutako itunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Mutiloabeitiko Adacen zentroan zerbitzu bat kudeatzeko Daño Cerebral Elkartearekin izenpetutako itunari buruzkoa. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna.

Egindako galderei erantzun aurretik, adierazi beharra daukat Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak soilik eguneko zetroaren araubidean plazak erreserbatzeko eta betetzeko hitzarmen bat duela Asociación de Daño Cerebral de Navarra (Adacen) elkarrearekin. Horrenbestez, plaza horiei buruzko erantzuna emanen dut.

1.- Zenbat toki dago beterik eguneko zentroan eta egoitzan? Zenbatekoa izan da okupazioa, ehunekotan, 2004 eta 2005eko seihilekoetan, modalitate bakoitzean? Adierazi egoitzako pertsonen adinak.

Une honetan itundutako 40 plazetatik 35 daude beterik. Okupazioaren batez bestekoa, seihilekoen arabera, honako hau da:

- 2004ko lehen seihilekoa: 56,73%
- 2004ko bigarren seihilekoa: 65,96%
- 2005eko lehen seihilekoa: 77,10%

Erabiltzaileen adinari dagokionez, hona hemen zehazturik: 57; 27; 52; 45; 31; 58; 63; 40; 30; 32; 34; 54; 42; 33; 60; 35; 39; 29; 46; 25; 25; 56; 52; 48; 54; 28; 54; 53; 43; 63; 45; 35; 58; 32; 37; 36;

Zer plantillak ematen ditu zerbitzuak egoitzan eta eguneko zentroan? Adierazi haietako bakoitza-

ren lanaldia, bai lan egunetan bai jai egunetan, zentroz zentro.

Adacenen eguneko zentroko plantilla ondoko taulan zehazten dena da:

Profesionalak	Arreta emateko lanaldiak	Lanaldia orduak/eguna
Zuzendari kudeatzailea	1 (% 50)	4
Harreragilea	1	7,5
Administrari kontularia	1	
Gidaria mantentze lanetako langilea	1	7,5
Psikopedagogo	1	7,5
Neuropsikologoa	1 (% 50)	4
Lan-terapeuta	1	7,5
Hezitzaileak	2	7,5
Laguntzaile jagoleak	6	7,5
Fisioterapeuta	1 (% 50)	4
Logopeda	1 (% 50)	4
Gizarte langilea	1 (% 50)	4
Errehabilitazioko sendagilea	1 (asteko 4 ordu).	Asteko 4 ordu
Monitorea	1	7,5

3. Zenbatekoa da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak toki bakoitzeko itundurik daukan hileko prezioa, zentro eta modalitate bakoitzean?

Adacenen zentroan itundutako toki bakoitzeko hileko modulua 1.167,27 eurokoa da.

4. Zentro horietako erabiltzaileak tarifarik ordaintzen al du? Zehaztu zenbat ordaintzen den eta zer kontzeptutan. Hala bada, itundutako prezioetik kentzen da?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeko lehendakariaren otsailaren 28ko 1/2005 Ebazpenari jarraikiz, zeinaren bidez erakunde autonomo horrek zuzenean ala zeharka kudeatzen dituen zerbitzuak prestatzeagatik dau den tarifak, salbuespen eta hobariak aldatzen baitira, Adacen-en zentroaren erabiltzaileek ordaindu behar duten tarifa 121,26 eurokoa da.

Horri dagokionez, aipatu ebazpenari jarraituz, eguneko zentroaren erabiltzaileei dagokienez, urte osoa kontuan hartuta, ez dute inolaz ere eskura izanen 1959,82 euro baino gutxiago ezarritako tarifa aplikatzeagatik.

Irizpide horien arabera, pertsona bakoitzak tarifa kontzeptuan ordaindu behar duen zenbatekoa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak entitatearekin itundu duen prezio edo hileko modulitik kentzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentu-

ko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, drogamenpeketasunen foru planaren aplikazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak drogamenpeketasunen foru planaren aplikazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Nafarroako

Gobernuak drogamenpeketasunen foru plana aplikatzeko atxikirik dauzkan giza baliabideei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Ondokoak dira Osasun Zuzendaritza Nagusiko Drogamenpeketasunen Foru Planaren Zuzendaritza Teknikoari atxikitako funtzionarioak eta lan kontratupeko langileak:

Zuzendari 1 Fermín Castiella Lafuente jauna
Sendagile 1 M^a Visitación Mateo García andrea
Soziologo 1 Abel Astrain Azcona jauna
Hezitzaile 1 Jesús Domínguez Iglesias jauna
Administrari 1 Concepción Sancha Orduña andrea

Honakoak izan dira drogamenpeketasunen foru plana garatzeko ezarritako kontusailak:

Aurrekontuko kontusaila	Urteak eta ezarritako kopuruak					
	2000	2001	2002	2203	2204	2005
Materiala argitaratzea, prebentzioa eta publizitatea	4.000.000	4.000.000	23.601	23.601	36.063	37.046
Berariazko prebentziorako eta koordinaziorako jarduerak	10.000.000	10.000.000	106.207	106.207	96.162	98.752
Drogamenpeketasunen aurkako udal planak egiteko dirulaguntzak	85.000.000	85.000.000	408.007	408.007	405.295	529.995
Entitateei prebentzio komunitarioko programak egiteko emaniko dirulaguntzak	15.000.000	15.000.000	150.253	150.253	221.650	249.749

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, odola emateko erabiltzen diren autobusei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak odola emateko erabiltzen diren autobusei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du odola emateko erabiltzen diren autobusei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna.

Nafarroan autohemoteka bat dago Iruñetik kanpo odola eman ahal izateko, eta hori aski dela uste dugu.

Autohemoteka hori 1988tik erabiltzen da, nahiz eta Ikasleen garraiorako ibilgailuak gehienez 16 urtez erabil daitezkeen (443/2001 Errege Dekretua).

Horregatik, autohemoteka aldatzeari egoki iritzi diogu, eta aurreikusita dago 2006ko lehen hiru hileroan berria izatea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Zainketa Intentsiboko Unitatean izandako inurri izurriteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Bideko Ama Birjina Ospitaleko Zainketa Intentsiboko Unitatean izandako inurri izurriteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Bideko Ama Birjina Ospitaleko zainketa intentsiboko unitatean izan den inurrien izurriteari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Ama Bideko Birjinako zainketa intentsiboen unitatean, noizean behin eta kopuru txikitik inurriak agertu dira, batez ere urte sasoi jakinetan. Noizbehinkako agerraldi horiek ez dute batere zerikusirik 2005eko abuztuan izandako izurritearekin; izan ere, haren ondorioz, Bideko Ama Birjina Ospitaleko zainketa intentsiboen unitateko erabile- ra anitzeko gela hustu eta suhiltzaileei deitu behar izan zitzairen.

Noizbehinkako agerraldi hauek hasi zirenetik, hainbat neurri hartu dira, guztiak arazoaren intentsitatearen arabera. Izan ere, 2002ko uztailean, zaintza intentsiboen unitateko aire girotuaren instalazioa aztertu, sistema desinfektatu, eta sabaiko bulkatzeko ahoetan zeuden pitzadurak itxi ziren. Era berean, unitateko sabaiko argi-fokuak aldatu ziren eta erabat zigitatu. 2005ean, berriz, eraginkortasun handiko iragazki eta aurreiragazkiak aldatu ziren.

2005eko abuztuko izurritetik aurrera gertatutako guztia, parlamentari horrek ongi dakien bezala, Osasun Batzordean ederki azaldu zen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentu-

ko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Tuterako Ospitaleko Hemodialisia Unitateari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Tuterako Ospitaleko Hemodialisia Unitateari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Tuterako Ospitaleko Hemodialisi Unitateari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun, Tuterako Ospitaleko Hemodialisi Unitatean 3 txanda daude:

a) Astelehen, asteazken eta ostiraletan, 08:00etatik 14:00etara. Txanda horretan 10 gaixoei egiten zaie dialisia.

b) Astelehen, asteazken eta ostiraletan, 14:00etatik 20:00etara. Txanda horretan 10 gaixoei egiten zaie dialisia.

c) Astearte, ostegun eta larunbatetan, 08:00etatik 14:00etara. Txanda horretan 8 gaixoei egiten zaie dialisia.

Dialisia 8 postu dituen areto handi batean eta ondoan dagoen 2 postuko beste areto txiki batean egiten da. Areto handiko postu guztiak betetzen dira hiru txandetan, eta areto txikiko postuak, berriz, astelehen, asteazken eta ostiraletako bi txandetan betetzen dira eta libre geratzen dira astearte, ostegun eta larunbatetako txandetan, gaixo kronikoek saio bereziak behar izanda ere. Astearte, ostegun eta larunbatetako txandetarako gordetzen ziren postuetan saio berezi gutxi egiten

zirenez, urriaren amaieran erabaki zen erizaintzako langileen txandak antolatzea, bi postu horiek bete eta barrutiko gaixo kroniko guztiak hartzeko.

Gaur egun, bi gaixo joaten dira Iruñera tratamendua hartzerantz. Gaixo horiek azaroaren 2an eta 7an sartu ziren zerrendan, hurrenez hurren.

Reina Sofía Ospitalearen asmoa da hemodialisiaren beharra duten giltzurruneko gaixo kroniko guztiak hartzea. Hala erakusten du azken urteotan izandako hemodialisi saio kopuruaren gorakada iraunkorrak. Bada, 2003., 2004. eta 2005. urteak alderatzen baditugu –urtarrilaren 1etik urriaren 31ra bitartean–, ikus daiteke 2003. urtean 3.196 saio egin zirela, 2004. urtean 3.325, eta 2005. urtean, berriz, 3.542. Horrenbestez, saio kopurua % 6,19 hazi da 2004. urtekoarekin alderatuta, eta % 10,5 2003. urteko aldi berarekin alderatuta.

Osasun Departamentuaren xedea da Tuterako barrutiko gaixo guztiei Reina Sofía Ospitalean ematea zerbitzu hori, eta horretarako estrategia hauek baliatu dira:

1.- Epe laburrera, gela txikiko 2 postuak betetzea. Horretarako, pixkanaka prestakuntza eman zaie erizaintzako langileei.

2.- Epe ertain eta luzera, dialisi postuen kopurua handitzeko asmoa dugu.

3.- Beste aukera bat izanen litzateke 4. txanda ezartzea (astearte, ostegun eta larunbat arratsaldeetan).

Ondoan dagoen gela ekipatuari dagokionez, egia da gela hori badela, eta, aipatu den moduan, orain % 100ean dago hemodialisia egiteko gaituta, gaur egun dauden txandetarako.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Plazaolaren garai bateko ibilbidea berrerabiltzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak Plazaolaren garai bateko ibilbidea berrerabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 28an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeak galdera egin du Plazaolaren ibilbidea zena berrerabiltzeko proiektua

lotu eta koordinatzeko Gipuzkoako Aldundiarekin akordio bat izenpetzeari buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuan ez dago horri buruzko inongo ekimenik eta ez dakigu Plazaola Turismo Partzuergoak horri buruzko ekimenen bat ba ote duen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, zenbait zentrotan garun-perlesia duten pertsonentzako zerbitzu bat kudeatzeko Aspace Elkartearekin izenpetutako itunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak zenbait zentrotan garun-perlesia duten pertsonentzako zerbitzu bat kudeatzeko Aspace Elkartearekin izenpetutako itunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak galdera egin du Ramón y Cajal eta Uxane zentroetan garun-perlesia duten ezgaituentzako zerbitzu bat kudeatzeko Aspace Navarra fundazioarekin izenpetu den itunari buruzkoa. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna.

Zenbat toki dago beterik eguneko zentroan eta egoitzan, bai modu iraunkorren bai ez-iraunkorren? Zenbatekoa izan da okupazioa, ehunekoetan, 2004 eta 2005eko seihilekoetan, modalitate bakoitzean? Adierazi egoitzako pertsonen adinak.

Egoitzan betetako tokiak 30 dira eta eguneko zentroan 86. Beraz, ondoan adierazitakoa da okupazioa ehunekoetan:

– 2004ko lehen seihilekoa:

- Eguneko zentroa: % 100
- Egoitza: % 99,02
- Egoitza ez-iraunkorra % 99,79

– 2004ko bigarren seihilekoa:

- Eguneko zentroa: % 88,33
- Egoitza: % 94,44
- Egoitza ez-iraunkorra % 70,83

– 2005ko lehen seihilekoa:

- Eguneko zentroa: % 77,83
- Egoitza: % 99,07
- Egoitza ez-iraunkorra % 48,96

Ramón y Cajal zentroan 24 orduko laguntza ematen da eguneko zentroa eta egoitza batuta

Erabiltzaileen adinari dagokionez, hona hemen zehazturik:

Egoitza ez-iraunkorra:

34; 30; 27; 29; 36; 26; 16; 12; 10; 11; 8; 20; 11; 11;

Egoitza iraunkorra:

61; 45; 54; 57; 12; 54; 61; 39; 30; 53; 40; 58; 21; 36; 60; 58.

Eguneko zentroa:

40; 11; 12; 45; 3; 15; 10; 5; 36; 29; 33; 14; 34; 33; 37; 39; 32; 17; 10; 40; 31; 5; 21; 37; 15; 7; 4; 6; 34; 5; 16; 5; 33; 31; 20; 22; 29; 13; 19; 22; 29; 21; 31; 42; 18; 33; 21; 41; 37; 17; 14; 33; 7.

Zer plantillak ematen ditu zerbitzuak egoitzan eta eguneko zentroan? Adierazi haietako bakoitzaren lanaldia, bai lan egunetan bai jai egunetan, zentroz zentro.

Ondoko taulan zehazten dira plantillaren datuak:

Ramón y Cajal zentroko langileak

Langileak	Arreta emateko lanaldiak
Autobuseko zaintzaileak	2 % 58,17rekin 1etik 3 orduara
Gizarte langilea	2
Fisioterapeuta	4
Lan-terapeuta	2
Logopeda	2
Pedagogia terapeutikoko maistra	2
Tailerreko monitoreak	6
Tailerreko maisua	1
Hidroterapiako monitoreak	1
Aisia-arduraduna	1
Laguntzaileak	7 (% 100) 2 (% 58'17)
Jantokiko laguntzaileak	5 (% 13'40) 3 (% 10;05 + 2550 ordu)
Kirol teknikaria	1 (% 74)
Garbiketako langileak	1 (% 30) 2 (% 87) 3 (% 94'15) 1 (% 33)
Mantentze-lanak	1 (% 23'13) 1 (% 100)
Sukaldeko langileak	3
Zaintzaileak	17 (% 100) 1 (% 70)

Zaintzaileen burua	2
Jarrera-kontrolerako laguntzailea	1 (% 50)
Hidroterapiako laguntzailea	1 (% 50)
Gidaria	1 (3 ordu).

Ramón y Cajal eta Uxane zentroetako langile komunak

Langileak	Arreta emateko lanaldiak
Zuzendari nagusia	1
Sendagilea	1
Administratzailea	1
Kordinatzaile nagusia	1
Administraro ofiziala	1
Zuzendaritzako idazkaria	1
Administrari laguntzailea	1 (% 50)
Telefonista	1

Uxaneko langileak

Langileak	Arreta emateko lanaldiak
Monitoreak	2
Garbiketako langileak	1 (% 40)

3. Zenbatekoa da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak toki bakoitzeko itundurik daukan hileko prezioa, zentro eta modalitate bakoitzean?

Itundutako toki bakoitzeko hileko modulua 1727,77 eurokoa da egoitza iraunkorrean, 1130,70 eurokoa egoitza ez-iraunkorrean, 1365,63 eurokoa eguneko zentroan eta 525,63 eurokoa okupazio-zentroan.

4. Zentro horietako erabiltzaileak tarifarik ordaintzen al du? Zehaztu zenbat ordaintzen den eta zer kontzeptutan. Hala bada, itundutako prezioetik kentzen da?

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko Gobernu Batzordeko buruaren otsailaren 28ko 1/2005 Ebazpenari jarraikiz, zeinaren bidez erakunde autonomo horrek zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen zerbitzuen tarifak, salbuespenak eta hobariak aldatzen diren, bi zentro horien erabiltzaileek ordaindu behar dituzten tarifak ondokoak dira:

- Egoitza: 114,960 € helduek eta 202,29 € adingabeek.

- Eguneko zentroa: 121,26 € helduek eta 68,59 € adingabeek.

Beraz, ebazpen horretan ezarritakoaren arabera, egoitzaren 18 urtetik gorako erabiltzaileek hileko per cápita errentaren ehuneko 90 ordaindu behar dute, beti ere tarifaren muga izanik. Hala ere, aipatu ehuneko hori aplikatu ondoren, erabiltzaileak ez du inolaz ere eskura izanen 1486,61 euro baino gutxiago, urte osoa kontuan hartuta.

Halaber, 18 urtez beherakoek ondoko hobariak izanen dituzte, integratuta dauden familiaren per capita errentaren arabera, taula honetan azaltzen den moduan:

UEPC	IPREMaren %	Euroak hilabeteko
6.577,20€	% 100	202,29 €
5.919,48 eurotik gora	% 90	182,06 €
5261,76 eurotik gora	% 80	161,83 €
4.604,04 eurotik gora	% 70	141,60 €
3.946,32 eurotik gora	% 60	121,37 €
3.288,60 eurotik gora	% 50	101,14 €
1.973, 16 eurotik gora	% 30	60,68 €
1.973, 16 euro arte	% 0	0

Eguneko zentroaren 18 urtetik gorako erabiltzaileei dagokienez, ezarritako tarifa aplikatu ondoren, ez dute inolaz ere eskura izanen 1959,82 euro baino gutxiago, urte osoa kontuan hartuta. Bestalde, 18 urtez beherakoak tarifa ordaintzetik salbuetsita egonen dira, integratuta dauden familiaren urteko errenta per capita Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren (IPREM) % 70era ez bada iristen.

Irizpide horien arabera, pertsona bakoitzak tarifa kontzeptuan ordaindu behar duen zenbatekoa, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak entitatearekin itundu duen prezio edo hileko modulitik kentzen da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Galdera, Hezkuntza Departamentuko aholkularitzaren eginkizunei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak Hezkuntza Departamentuko aholkularitzaren eginkizunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera bat egin du Hezkuntza Departamentuko zeharkako gaien eta balioen aholkularitzak dituen eginkizunei buruz. Hona hemen Hezkuntza kontseilariaren erantzuna.

Honakoak dira zeharkako gaien eta balioen aholkularitzak dituen eginkizunak:

– Foru erkidegoko urteko prestakuntza plana prestatzen, garatzen, kudeatzen eta ebaluatzen parte hartzea.

– Ikastetxeei babesa eta aholkua ematea, Nafarroako Foru Komunitateko urte planean eta Irakasleei Laguntzeko Zentroaren jarduketan planean zehaztutakoari jarraituz.

– Material didaktikoak landu eta zabaltzea eta Irakasleei Laguntzeko Zentroaren datu base dokumentala elikatzea.

– Prestakuntza sarearen funtzionamendu koordinatua eta auto-prestakuntzako prozesuak sustatzea bideratzen dituzten lan batzorde guztietan parte hartzea.

– Zeharkako gaiekin eta balioekin loturiko arloetan lan egiten duten departamentu, erakunde, entitate era organismoetako teknikariek eratzten diren batzorde teknikoetan eta lan batzordeetan parte hartzea, eta batzorde horiek ikastetxeekin egiten dituzten jarduerak koordinatzea.

Zeharkako gaien eta balioen aholkularitzan funtzionario batek egiten du lan, eta Hezkuntza Departamentuko Ikasketak Antolatu eta Hezkuntza

Berriztatzeko Zerbitzuko Curriculum Diseinuaren Bulegoan sarturik dago.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 23an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Senda Vivan inbertsio publikoak egiten jarraitzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Senda Vivan inbertsio publikoak egiten jarraitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Senda Vivan inbertsio publikoak egiten jarraitzeari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

1. galdera.

“Senda Viva” naturaren parkeak leku nabarmena betetzen du foru erkidegoan turismoa sustatzeko planean. Inbertsio azpimarragarria bada ere, osagarria da Nafarroan eta Erriberan turismoa garatzeko asmoaren barruan. Halaber, Nafarroako Gobernuak sustatzen duen “Aniztasunaren Erresuma” horren adierazle argia da.

Erriberarentzat inbertsio estrategikoa da, eta UNESCOk biosferaren erreserba izendatutako Errege Bardeako ingurune paregabea dinamizatzeko indar nahiko duena. Nafarroako alde horretan egin dira pelikula eta telebistarako iragarki gehien. Bertan ureztalurrak eta basamortuak elkarren ondoan daude, eta horiei gehitu behar zaizkie kultur ibilbide eta bisitaldiak eta ordezkio energiak sortzeko azpiegiturak.

2005. urtea parkea birdefinitzeko eta trantsizio urtea izan da. Irekitzeko egutegia eta obren eragozpenak gorabehera, lehen izandako bertaratze eta asetasun indizeak hobetu dira. Era berean, gastu arruntak murriztu dira zerbitzuari eta bezeroen arretari kalterik egin gabe. Parkeko erosotasunean ere hobekuntzak egin dira (tren-garraioa, sarbideak, ikuskizun klimatizatuak, ur-atrakzioak, arboladiak eta jatetxeak ugaritzea).

2005eko denboraldian (ekainetik urrira bitarte) 41.613 lagunek bisitatu dute Senda Viva. Urrian, parkeak Zaragozan egin zen turismo azokan parte hartu zuen, eta publikoaren harrera onak azken egunetako bertaratzeetan izan du eragina, urrian ireki zen azken asteburuan 2749 lagun baina bisita izan baitzuen. Hil honetan bertan, egunero 1000 lagun baino gehiagok bisitatu dute Senda Viva (asteburuetan), horien artean Gipuzkoa, Errioxa, Nafarroa eta Zaragozako 30 eskola eta ikastola baino gehiagotatik etorritako 3.268 ikasleak.

2005ean, parkea aurreko urtean baino egun gutxiagotan zabaldu da eta, hala ere, eguneko batez besteko bisita kopuruak igoera nabarmena izan du; hain zuzen, 368 lagunetik 533ra pasatu da.

Zifra horiek ekimen honen bilakaera ona adierazten dute eta etorkizunean parkea sendotuko den ustea berresten dute.

2. galdera.

2006a trantsizioaren bukaeraren eta joera aldaketaren urtea izanen da. Senda Vivak Aste Santuko oporren aukera aprobetxatuko du, 100 egun baino gehiagotan irekiko du, eta ikasturtea eta ikasleen erabilera eta sustapen aukerak kontuan izanen ditu, parkeko aterpetxe-egoitzan egun bat edo bi eguneko egonaldia egin ahal izanen baitute.

Bisitarien kopuruari dagokionez, eta parkean bertan egin diren inkestetan islatzen diren espektatibak eta onartze maila erreferentziazat harturik, 70.000 baino handiagoa izan behar du. Guk 90.000 bisitari inguru lortu nahi genuke.

2006ko ekitaldiaren kontura, proiektu honetarako ekarpen berriak izatea beharrezkotzat jotzen dugu, erosotasun eta eduki gehiagoko parke baten eta beharrezkoa den errentagarritasunaren arteko oreka bilatzeko asmoz.

Parkeko kudeatzailletza delegatua lantzen ari den negozio planak inbertsioaren errentagarritasuna du helburu, baina SODENA ere finantza errentagarritasunaz gain foru erkidego honetako dibertsifikazioa eta garapen orekatua kontuan hartu behar duen errentagarritasun estrategikoaren bila lanean ari da. Sektore honetan beharrezkoa da urtero inbertsioak egitea, instalazioak eta atrakzio berriak sendotu, ugaritu eta hobetzeko.

3. galdera.

Nafarroako Gobernuak Senda Vivako langileen lan egoerari buruzko etengabeko informazioa du,

Sodenaren administrazio kontseiluaren bidez eta honen lehendakaria den Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren bidez.

Gaur egun, 16 langile ari dira lanean (bost mailatan banaturik), eta denek lan-kontratu mugagabea dute. Lansari gordinak 20.000 eta 14.500 euro bitartekoak dira. Senda Vivaren funtzionamenduak, aisialdirako sektore honen ezaugarrietatik, lanaldi partzialeko langileak kontratatzea eskatzen du (joan den denboraldian guztira 45 sei jarduera desberdinetan). Hauek, batez beste, 691 lanordu egin dituzte. Udan 4 laneguneko astea bete dute eta lansari gordina 60 euro/eguneko izan da.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, zerbitzu publikoak bermatzeko departamentuen artean beharrezkoa den koordinazioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak zerbitzu publikoak bermatzeko departamentuen artean beharrezkoa den koordinazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko azaroaren 30ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du herritarrentzat beharrezkoak diren zerbitzu publikoak bermatzeko Hezkuntza Departamentuaren eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuen artean beharrezkoa den koordinazioari buruz. Hona Hezkuntza kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentuaren eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuen arteko koordinazioa Lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean xedatutakoari jarraikiz garatzen da. Foru lege horren 53.6. artikuluan, ekipamendu eta zerbitzu-guneei buruzko determinazioak aipatzerakoan, hauxe ezartzen da:

“Hezkuntza edo osasun ekipamendurako azalera kasu bakoitzean zehaztuko da, Foru Komunitateko administrazioaren hezkuntza edo osasun politikaren beharren arabera, dagokien organoek

egindako txostenaren bidez, udal plan orokorraren behin-behineko onespena baino lehen...”

Ondoren, aipatu legearen 70. artikulua arautzen da hiru mila biztanletik goitiko udalerrietako udal plan orokorraren tramitazioa. Artikulu horren 4. idatz-zatiak honako hau dio: “Halaber, eta jendaurreko aldiarekin batera, hasiera batez onetsitako Plana igorriko da Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura, hark txostena egin dezan Nafarroako Gobernu departamentuen eskumenetako gaiez, eta bereziki departamentu hauenetakoei buruz: ... c) Hezkuntza eta Kultura Departamentua. ... Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak txosten orokor bat prestatuko du, Nafarroako Gobernu departamentu desberdinetako inguruabar sektorialak bilduta. ...”

Artikulu beraren 9. idatz-zatiak honako hau dio: “Espedientea osatzen delarik, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak plana aztertuko du, ikusiz indarrean dagoen legeriari, aurreko itunari eta lurraldearen antolamendurako tresnen determinazioei egokitzen zaien, eta udaletatik eskainitako irtenbideak nola koordinatzen diren komunikazio bide eta azpiegiturei buruzko politika orokorrekin, etxebizitza, ingurumen, mendi, ureztaketa eta ondare historikoaren gainekoekin, eta Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenekoak diren bestelako politika sektorialekin”.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2006ko azaroaren 23an

Hezkuntza kontseilaria: Luis Campoy Zueco

Galdera, Txinaren kontra futbol partida bat jokatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Txinaren kontra futbol partida bat jokatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du heldu den abenduaren 26an Nafarroako eta Txinako Herri-Errepublikako selekzioen artean burutuko den partidari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren eledun eta Toki Administrazioaren kontseilariaren erantzuna:

2004an egin zen bezala, Nafarroako Gobernuak lankidetzaz hitzarmena izenpetu du Nafarroako futbol selekzioak abenduan jokatu duen nazioarteko futbol partida babesten duen Nafarroako Kutxa Fundazioarekin. Aipatu hitzarmen horretan, Nafarroako Gobernuak ordainduko duen kopurua gehienez 170.000 eurokoa izan daitekeela xedatu da.

Partidaren antolatzaileek egindako komunikabide planak kartelak egitea, eta irratietan eta prentsan iragarkiak jartzea aurreikusten du. Kanpaina azaroaren 21ean hasi eta partida jokatu duten egunera arte luzatuko da, abenduaren 26ra arte alegia.

Publizitate kanpainak 41.160 euroko kostua izanen du, horrela banaturik: Nafarroa osoan banatuko diren 2000 karteletan, Nafarroako SER, COPE, Onda Cero, Cadena 40 eta Cadena 100 irratietan emanen diren iragarki laburretan, eta Diario de Navarra, Diario de Noticias, Vivir Pamplona, Osasunaren Aldizkaria, Plaza Nueva, La Voz de la Ribera eta La Ribera agerkarrietan jarriko diren iragarkietan.

Antolatzaileek partidara joanen den publikoari buruzko zifrarik ez dute zehazten; izan ere, beste autonomia-erkidego batzuetan antolatzen diren antzeko ekitaldietan gertatu ohienez, eta ekitaldiaren data kontuan izanik, ikusle kopuruak zerkusi handia du norgehiagokak jokatzeko diren egu-

nean egiten duen eguraldiarekin. Dena den, joan den urteko ikusle kopurua gaintzea espero da; hain zuzen, El Sadar futbol zelaira joan ziren 6000 ikusle inguru joan ziren, 41.000 baino gehiagok telebistan ikusi zuten Nafarroan eta milioika pertsonak Marokoko telebistaren bidez ikusi zuten.

Nafarroako Gobernuaren ustez, futbola, Europan eta munduko leku askotan jarraitzaile gehien duen kirola izateaz gain, benetako fenomeno soziologikoa ere bada eta edozein desberdintasun ideologikoren gainetik, nazio edo erregioko herritarren sostengua lortzen du. Nafarroako futbol selekzioaren jardun etengabea Nafarroako Foru Komunitateko sinboloak zabaltzeko oso tresna eraginkorra da, batez ere gazte eta umeen artean.

Antzaenez, hori bera pentsatu dute Euskadi, Katalunia, Valentzia eta Andaluzia bezalako Espainiako beste autonomia erkidegoetako exekutiboei, beraien futbol selekzioei zalantzarik gabeko sostengua ematen dietelako, eta berdin hau bezalako ekimenak antolatzen hasiko direla iragarri dutenek, besteak beste Galiziak eta Madrilek.

Bestalde, Nafarroako Futbol Federazioak gure erkidegoko taldearen kontra aritzeko Txinako Herri-Errepublikako selekzioa aukeratzeari egoki deritzogu. Asiako talde indartsuenetarikoa eta munduan gorantz doan potentzia baten erakuslea denez, eta gainera hurrengo Joko Olinpikoak antolatuko dituzenez, sumatzekoa da partidak komunikabideak eta nafar zaletuen arreta erakarriko dituela.

Partida bai Nafarroan bai Txinan zuzenean emanen dutenez, nafar herritar askok ikuskizunaren parte izateko aukera izanen dute, eta gure erkidegoaren irudia gure mugetatik haratago zabalduko da. Aurreikuspen zuzenaren arabera, Txinako 170 milioi ikuslek zuzenean jarraituko dute partida.

Horri dagokionez, azpimarratu behar da Espainiako autonomia erkidegoetako turismo arduradunentzat Txinako merkaturia interes handikoa izaten hasi dela; izan ere, Txinako herritarren artean, bertatik kanpo bidaiatzeko erosteko ahalmen handia dutenak, nahiz eta gutxiengoa izan, 60 milioi dira, gogoan hartu beharreko kopurua, alegia.

Txinako futbol selekzioa Nafarroara herrialde hartako komunikabideen ordezkariekin etortzeak gure erkidegoa Asiako herri hartan ezagutaraztea erraztuko du. Txinako espedizioak Nafarroan egin behar duen egonaldia bost eguneko izanen

denez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak Nafarroako hainbat leku enblematiko ikusteko bisitaldiak antolatzeke asmoa du, aipatu komunikabideek horien berri eman dezaten.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parla-

mentuko Erregelamenduaren 190. artikulua bete-
tzeke.

Iruñean, 2005eko azaroan

Toki Administrazioiko kontseilari eta Nafarroako
Gobernuko eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroan turismoa sustatzeko planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak Nafarroan turismoa sustatzeko planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 2an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak galdera egin du Nafarroan turismoa sustatzeko planarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz. Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

1. Nafarroan turismoa sustatzeko planaren edukari eta bertan aurreikusitako ekintzei buruzko informazio orokorra.

2005. urtean ezartzen hasi den marketin plan integrala merkatu desberdinetan sartzea eta gure turismo enpresentzat egokienak diren merkatura-tzeko bideak baliatzea ahalbidetzen digun tresna da.

Plana Kultura eta Turismo Departamentuak prestatu du, Chias Marketing enpresaren aholkularitzarekin eta Nafarroako turismoaren sektoreko enpresa eta eragileen laguntza eta partaidetza aktibo eta aitortzeko moduarekin.

Marketin plana diseinatzeko, egoeraren diagnostiko zehatza egin zen, baita Nafarroak dituen turismo balibideen eta foru erkidegora etortzen den turismo-fluxuaren balorazioa ere.

Planak, Nafarroako turismoaren eta merkatu lehiakideen alderdi indartsuak eta ahulak aztertu

ondoren, jarraitu beharreko estrategia zehazten du. Estrategia horren muga 2010. urtean jarri da.

Planaren xedea da Nafarroaren irudi hau ematea:

– Kalitatezko eta lasaitasunezko destino turistikoa.

– Babestutako natura eta urtaro guztietan paisaia anitz eta ikusgarriak dituen lurraldea.

– Ongi zaindutako ondare historikoa, ibilbideak eta bideak dituen lurraldea.

– Kultura bizi, jatorra eta tradizioan oinarriturikoa duen lurraldea.

– Berezko gastronomia eta ardo bikainak eskaintzen dituen lurraldea.

– Jai berezi eta desberdinak dituen lurraldea.

– Jende abegikorra bizi den lurraldea.

– Ongi egoteko tokia.

Xede diren merkatuak.

Hauexek dira xede gisa hautatu diren merkatuak:

– Nafarroa

– Inguruko merkatuak, hemendik bi ordu baino gutxiagora daudenak: Euskadi, Errioxa, Zaragoza, Frantziako hego-mendebala.

– Turista-igorle handiak, Katalunia eta Madrilgo Komunitatea bezalakoak.

– Lehentasuna duten beste erkidego batzuk: Valentzia, Murtzia, Balear Irlak, Gaztela eta León.

– Europako merkatuak, bereziki, Frantzia, Holanda, Alemania, Belgika eta Italia.

Jarraitu beharreko strategiaren barruan, planean zehaztu dira merkatu horietan zabaldu beharreko mezuak, Nafarroara etor daitezen konbentzi-

tzeko, eta dekalogo batean laburbildu ditu. Dekalogo horretan bereziki nabarmendu behar diren argudioak jasotzen dira, foru erkidegoko eskaintza turistiko orokorraren ezaugarriak era berezitasunak deskribatzen dituztenak; horretaz gain, mezu iraunkor bat eta marka bat ere zabalduko dira.

Irudi berria eta mezu iraunkorra.

Marketin plan hori irudi turistiko baten eta jada ezaguna den "Reyno de Navarra, tierra de diversidad" (Nafarroako Erresuma, lur anitza) mezu iraunkorraren bidez egiten ari da. Marka berri hori promozio-euskarri guztietan azaltzen da (argitalpenak, publizitatea, web orriak, aurkezpenak eta abar).

Produktu aukera

Hauek dira promozio-ekintza desberdinen bidez sustatuko diren produktuak:

– Nafarroa, lur anitza.

Produktu nagusia da eta merkatu guztietan aurkeztuko da. Joaten diren tokia ongi ezagutzea helburu duten eta horretan ardura osoa jartzen duten bidaiariei zuzenduta dago. Produktu horrek 7tik 10 egunera bitarteko egonaldia eskaintzen du Nafarroan, bere oparotasun osoa ezagutzeko. Nafarroa sustatzen du produktu bakar gisa, baina lau eskualdeak ezagutzeko ibilbideak eskaintzen ditu: Pirinioak, Iruñerria, Erdialdea eta Erribera. Ibilbide eta produktu osagarriak buruzko informazioa eskaintzen da, baita ostatu eta jatetxeei, jaiak, gastronomiari eta ardoei buruzkoa ere.

– Lau urtarotako erresuma.

Produktu hau aurrekoaren osagarria da eta jende guztiari zuzenduta dago, bereziki nafarrei, inguruko eskualdeetako herritarrei eta hegazkinez 4 ordu baino gutxiagora dauden tokietakoei. Egonaldi laburretarako dago pentsatuta; adibidez, asteburu eta zubietarako. Urtaroen aniztasunari buruzko mezu argia transmititzen du, baita Nafarroa lau urtaroetan ezagutzeko proposamen zehatz eta gaurkotuak ere, urtaro bakoitzeko kolore berezia kontuan hartuta: udaberriko berdea, udako jaietako gorria, udazkeneko okrea eta neguko zuria. Urtaro bakoitzean ikusteko eta gozatzeko toki egokienak proposatzen ditu, baita toki horietan egiteko berezko jarduerak ere: ibilaldiak naturan, jaiak, ekitaldiak edo garaiko gastronomia.

–Opor lasaiak.

Masifikaziotik ihesi, lasaitasun bila dabilzaten zako produktua. Uda, Aste Santu eta Eguberrietarako pentsatua dago, landa eremuari begira gehienbat. Produktu horrek Nafarroa (bere lau eskualdeak, bakoitza bere ostatu eta jarduerekin)

eskuragarri jartzen die opor lasai eta indargarrien bila dabilzanei.

–Kultura naturan.

Produktu honen bidez turista kulturalari eskaintzen zaio Nafarroa. Interes handieneko tokiak eta baliabideak (Leire, La Olivako monasterioa, Orreagako kolejiata eta Jorge Oteizaren museoa) paisaia ikusgarriekin uztartuko dira.

–Nafarroa naturala da.

Produktu hau ekoturismoaren eta naturako turismoaren zaleengana dago bideraturik. Natur parkeak, erreserbak, eremu babestuek eskainiko zaizkie (Irunberri eta Arbaiungo zintzurak, Bardea, Urbasa eta Aralar mendiak).

– Kongresuak, konbentzioak eta pizgarriak.

Baluartea-Nafarroako Biltzar Jauregi eta Auditorioa eraiki eta funtzionamenduan jartzearen ondorioz, Nafarroa kongresu handien zirkuituan sartu da. Produktu horrek ahalik eta ekitaldi gehien erakarri nahi ditu, eta guztion lan koordinatua du euskarri: Baluartea eta bere merkataritza atalarena; Pamplona Convention Bureau erakundearena; ostalaritza sektorearena eta, oro har, foru erkidegoko elkarte eta entitate guztiena.

–Nafarroa landa turismoa da.

Produktua landa ingurunean murgildu bertako herritarrekin bizi eta haien ohiturak eta lana ezagutu nahi dutenentzat pentsatua dago. Bisitariak landa lojamenduetan eskaintza zabala egiten zaie eta esperientziak hobeki gozatzeko egin dezaketen guztiaren berri emanen die.

Sanferminak, Santiago bidea eta Pirinioak.

Hiru produktu horiek izarrak dira; izan ere, horientzat da Nafarroa ezaguna nazioan eta nazioartean. Iruñeko Udalarekin lankidetzan, sanferminen produktuak jai unibertsal horiei buruzko informazioa bultzatu eta eskaintza Nafarroa osora zabaltzen du, turistek egun batzuk eman ditzaten foru erkidegoan eta jai giroa nahiz lasaitasuna ezagutu ditzaten.

Pirinioak eta Santiago bidea Espainian eta atzerrian sustatzen dira, Turespañarekin eta beste autonomia erkidego batzuekin koordinaturik. (Duela gutxi Alemanian egin den Pirinioren aurkezpenean parte hartu dugu).

– Merkatuko txokoak.

Produktuen aukera osatzeko, badira talde jakin batzuentzat bereziki diseinaturiko produktuak.

Kirola naturan. Produktu hori zuzenduta dago, alde batetik, abenturazaleei, eta, bestetik, kirolza-

leei oro har. Mendi-ibiliak, mendiko bizikletak, urkirolak, iraupeneko eskia, ibilaldiak erraketekin eta golfa dira produktu horren barruan eskaintzen proposamenetako batzuk.

Nafarroa, Xabierren sorteria.

Produktu honek garrantzi berezia izanen du 2006. urtean, santua jaio zeneko mendeurrenaren ospakizunak direla eta.

Hegaztien behaketa. Produktu hau Europako hainbat herrialdetan eta Estatu Batuetan kontzentratzen den turista multzo oso berezitu bati zuzenduta dago, eta Nafarroak eskaintzen dituen aukerak baliatzen ditu. Halaber, arlo horretan lan egiten duten elkarteekin koordinatuko da.

Ardoen lurraldea. Nafarroan bi jatorrizko izendapen daude eta horrek aukera ona eskaintzen du. Produktu honen bidez ibilbide eta bisita berezituak garatu nahi dira.

Nafarroan ikastea.

Hainbat talderi zuzendutako produktua, hala nola unibertsitateko bigarren eta hirugarren zikloko ikasleei, graduondoko eta sakontze ikasketak egiten ari direnei, gaztelania ikasten ari diren atzerriarrei eta euskara eta euskaraz ikasten duten ikasleei.

Sustapen jarduketak

Zehazki, marketin plan horretan sustapeneko 50 ekintza inguru egin behar direla ezartzen da.

Laburbilduz, Nafarroako turismo-eskaintzaren ezagutarazpena du xede, eta horretarako berariazko ekintzak ezartzen ditu: aurkezpen-ekintzak, komunikazio-programak, publizitate-kanpainak, argitalpen eta foileto berriak egitea eta abar.

a. Sustapen euskarriak

Sustapen euskarri hauek prestatu dira:

– Argitalpenak:

- Trade esku orria. Nafarroako eskaintza osoa, produktu guztiak barne, aurkezten da bertan, eta turismoaren arloko bitartekariei eta antolatzaileei zuzenduta dago (bidaia-antolatzaileak, bidaia agentziak, elkarteak, prentsa eta abar...)

- Kontsumitzaileentzako esku orria: Horretan ere Nafarroako eskaintza osoa aurkezten da, produktu guztiak barne, baina azken kontsumitzailearentzat pentsatuta dago; hau da, turistarentzat.

- Planean zehaztutako produktuei buruzko esku orri tematikoak.

- Planean zehaztutako 4 turismo eskualdeei buruzko esku orriak: Pirinioak, Iruñerria, Erdialdea eta Erribera.

- Ostatuena gida

- Nafarroako planoak

- Posterrak.

– Web orria

Turismoari buruzko atari berria. Berezko domeinua da, diseinu eta eduki berriak dituena, salgarriagoa eta erakargarriagoa. Horren bitartez, web euskarriaren bidez sustatuko dira zehaztutako turismo produktu guztiak, eta horrek beren oporrak prestatzea erraztuko die euren kabuz prestatzen dituzten turistei, baita bidaia agentzien laguntzaz prestatzen dituztenei ere. Horretaz gain, profesionaleri eta prentsari arreta emateko zerbitzu bat izanen du.

– Bideo promozionalak.

Nafarroari buruz bideo promozionalak egin dira, hala nola “Navarra desde el aire” (Nafarroa airetik ikusita) eta “5 continentes en uno” (5 kontinente bakar batean bilduta).

b. Sustapen ekintzak xede diren merkatuetan

– Nafarroako eragileak.

Planean jaso da hainbat turismoko eragile ezartzea, lehentasunezko merkatuetan, bai Espainian (Balear irlak, Katalunia, Levante, Madril eta EAE) bai Europan (Alemania, Frantzia, Italia, Herbehereak) jardunen dutenak. Eragile horiek, Turespañarekin lankidetzan eta koordinatuta, dira turismoaren sustapenerako kanpoko taldea, eta haiek arduratzen dira turismo operadoreekin, azoka eta ekitaldien arduradunekin, komunikabideekin harremanak izateaz.

– Ezagutza bidaiaak.

Planak jasotzen du, halaber, ezagutza bidaia antolatzea, kazetari espezializatuentzat eta turismoaren arloko bitartekariarentzat (lehentasunezko merkatuetako bidaia agentziak eta bidaia-antolatzaileak), Nafarroako ezagutza dezaten eta gure produktuen sustapenean lagun dezaten, baita bitartekariarekin hitzarmenak lortzeko ere, Nafarroa beren katalogo edo bidaia-proposamenetan sar dezaten.

– Aurkezpenak.

Marketin planean jasotako produktuen aurkezpenak egingen dira lehentasunezko merkatuetan.

– Lan jardunaldiak (Workshops):

Sektoreko Nafarroako profesionalen eta xede diren merkatuetako turismoaren arloko bitartekari

eta antolatzaileen arteko bilerak prestatu dira, merkataritza harremanak sustatzeko.

– Eskaintza elkarteak.

Beste programa bat da turismoaren sustapenerako elkarteak sortzea. Zenbait produktu turistikoren inguruan, gobernuak eta turismoaren sektoreak adosturik, elkarte horiek eskaintzako gutxieneko baldintzak ziurtatu eta horren sustapena antolatuko dute kanpoko merkatuetan. Lehengo elkarteak Hegaztien behaketa, Kirola naturan, Golfa eta gastronomia eta Kongresuak izeneko produktuekin lotuta daude.

– Pentsarekiko harremanak.

Nafarroako turismo eskaintzari buruzko komunikatu eta informazio buletinak igorriko dira hedabide turistiko eta orokorretara, eta horren bidez lortu nahi da Nafarroa xede turistiko gisa agertzea hedabideetan.

– Nazioko eta nazioarteko azoketara joatea.

Nafarroaren presentzia indartuko da nazioarteko azoketan, bereziki xede diren merkatuetan.

– Publizitatea.

Hedabideen plan bat jarri da abian, eta ondoan hartuko dira kontuan:

- Prentsa orokorra (turismoari buruzko gehigarriak)

- Astekariak
- Turismo aldizkariak
- Web orriak
- Telebista

2. Plan horrekin lotutako aurrekontu aurreikuspenak, kontusailez kontusail eta Nafarroako eskualdean arabera zehaztuta.

Atal horri erantzuteko, 2006. urteko aurrekontu-ei buruzko lege proiektura jo behar da. Dena den, argitu behar da sustapena ez dela eskualdeka bereizita eginen, Nafarroa osoa hartuta baizik.

3. Nafarroaren irudia sustatzeko publizitateko gastu-aurreikuspenak, horretarako aurreikusitako ekintzak justifikaturik.

Atal horri erantzuteko, 2006. urteko aurrekontu-ei buruzko lege proiektura jo behar da.

4. Nafarroako Gobernuak ekonomiaren eta merkataritzaren arloetan dituen justifikazio irizpideak, gure erkidegoaren sustapen turistikora zuzendutako ekintzak ezartzerakoan.

Nafarroan dagoen eskaintza, gaur egungo turismo eskaera eta eskaera potentziala zehatz-mehatz aztertu dira, eta azterlan hori hartu da abiapuntutzat. Informazio horretan oinarrituta, heldu diren urteetan lortu nahi diren helburuak finkatu dira. Bi osagai horiek garatu beharreko ekintzak zehazteko jarraibideak ematen dizkigute.

Hauexek dira planean ezarritako helburuak:

– 2006. urtean milioi bat bisitari lortzea, eta 2010erako milioi eta erdira gerturatzea.

– Turismo bolumenaren hazkunde kualitatiboa lortzea, bereziki iraupen gutxiko turismoarena (gau 1 eta 3 bitartekoa), iraupen luzekoarena (7 gau baino gehiago) eta turismo espezializatuarena.

– Dirusarreraren hazkundera lortzea, batez besteko estantzia luzatzeagatik.

5. Inbertsio horietatik berreskuratzen den diruaren kalkulua.

Berreskuratzen den dirua kalkulatzeko, funtsezko datu bat hartu behar da kontuan: turista bakoitzak eguneko egiten duen gastua Nafarroan. Gastu hori 80 eurokoa da, pertsonako eta eguneko.

Horrenbestez, sustapenaren bidez erakartzea lortzen dugun turista bakoitzak 80 euroko dirusarrerara ekarriko du, eta horren onuradun izanen dira inplikaturiko sektore guztiak (ostatuak, jatetxeak, garraioa, beste zerbitzu batzuk eta abar), baita Nafarroako herritar guztiak oro har.

2006. urterako lortzen badira, inplikaturiko sektore eta eragile guztien artean –arlotan publikoko eta pribatukoak–, 1.000.000 bisitarien helburua eta turistaren zati handi batek egonaldia luzatzeko helburua –adibidez, egonaldiak 4 egunera arte luzatzea, batez beste (gaur egungoaren bikoitza)–, 320.000.000 euroko dirusarrerak lortuko lirateke.

Errentagarritasunaren tasa kalkulatu nahi bada, kontuan hartuta sustapenerako inbertsioa 4.200.000 eurokoa izan dela 2006. urtean, errentagarritasunaren ehunekoa izugarri handitzen da, % 7.619, hain zuzen.

Urtean izandako turista gehikuntzagatik errentagarritasun tasa kalkulatu nahi bada, eta betiere estimazioak direla kontuan hartuta, pentsa liteke 2006. urtean 100.000 turista gehiago izatea lortuko dela (Chías Marketing enpresaren kalkuluen arabera, 100.000 turista gehiago urteko milioira iritsi arte). Horrek ekarriko luke urtean 42.000.000 euroko dirusarrerara gehigarria (100.000 x 80 x 4 gau); horrenbestez, errentagarritasun tasak,

4.200.000 euroko inbertsioarekin alderatuz gero, % 761ko eginen luke.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 24an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa izeneko programan euskarari emanen zaion tratamenduari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak Xabier 2006-Kultura unibertsaleko topaketa izeneko programan euskarari emanen zaion tratamenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatzeko ekitaldietan euskarari emanen zaion tratamenduari buruz. Hona Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eledunaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak euskara erabili du Frantzisko Xabierkoaren jaiotzaren V. mendeurrena ospatu aurretiko ekitaldietan. Horrela, bada, 2004ko xabierraldiak zirela eta gazteluko bisitariei ongietorria emateko paratutako hesietan erabili zen hizkuntzetako bat da.

Bestalde, Nafarroako etxea daukaten Espainiako hamabi hirietan paratu den "Frantzisko Xabierkoaren arrasto unibertsala" izeneko erakusketarekin batera antolatu diren kontzertuetan, gaztelania, euskara, latina eta japoniera dira Iruñeko katedraleko musika-kaperak eta Zangozako Nora abesbatzak eskaini dituzten abestien letren hizkuntzak.

Era berean, euskara da www.javier2006.com web orriak eskaintzen duen informazioa eskuratzeko internautek erabil dezaketen hizkuntzetako

bat, eta, oro har, mendeurrena dela eta kaleratu diren argitalpenetan ere euskara agertzen da. Adibidez, "Xabier 2006, kultura unibertsalaren topaketa" argitalpenean eta "Frantzisko Xabierkoaren aztarna unibertsala" bideoan euskara agertzen da.

Egitarauan programatuta dauden Nafarroako abesbatzen musika ekitaldietan, orokorrean, euskarazko kantak ere abestuko dira. Halaber, euskaldunak izanen diren ekitaldietan ere euskara erabiltzeko asmoa dago.

Aurtengo urrian hasitako "Xabier 2006" programaren boluntarioen kanpaina ezagutarazteko xedez Komunikazio Zuzendaritza Nagusia-Gobernuko Eledunaren Bulegoak argitaratu dituen mila eta hirurehun kartelen ehuneko 23 euskaraz dago.

Turismoari begira egindako promozioei dagokionez, Xabierko turismo bulegoan "Reyno de Navarra. Tierra de diversidad" turismo-markaren euskarazko bertsioa –"Nafarroako Erresuma. Lur anitza", alegia– erabilitakoen artean egonen da. Informazio gune horretan bisitarien eskura jarriko diren argitalpenak euskaraz ere agertuko dira.

Hala ere, 2006an egingo diren publizitate kanpainak Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretuan ezarritakoa beteko dute, ezinbestean, eta dakizuenez, aipatu dekretu honen 16. artikulua ezartzen du "Xedapenak, oharak, argitalpenak, iragarkiak eta mota guztietako publizitatea gaztelaniaz izanen direla".

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroan

Toki Administrazioako kontseilari eta Nafarroako Gobernuaren eleduna: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Errioxako eta Nafarroako Tenaria operadorea saltzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak Errioxako eta Nafarroako Tenaria operadorea saltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 14ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak galdera egin du Errioxako eta Nafarroako Tenaria, S.A. operadorea saltzeari buruz. Hona hemen Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna:

Ondoko adierazpenari buruz, "Berriki, Errioxako eta Nafarroako TENARIA izeneko operadorea saldu da; Nafarroako Gobernuak bazuen partaidetza bertan, SODENAREN bitartez"; komeni da esatea Errioxako eta Nafarroako Tenaria, S.A. (hemendik aurrera, Tenaria) ez dela berriki saldu jarraian esaten denagatik:

1. 2004ko martxoaren 29an egindako bilkuran, Sodenaren administrazio kontseiluak erabaki zuen "Auna Operadores de Telecomunicaciones, S.A." enpresak Tenaria S.A. konpainiaren akzioak bere akzioengatik trukatzeko eskaintza, laster gauzatzeko asmoa duena, bere baldintza eta termino guztiekin ONARTZEA. Eskaintza horrek hartzen ditu "Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A." sozietateak dituen Tenaria S.A. konpainiaren akzio guztiak, Tenaria S.A.-ren akziodunen batzar nagusiak 2004ko martxoaren 1ean onetsitako kapital-zabalkuntzaren ondorioz harpidetutako A tartekoak barne.

2. 2004ko martxoaren 31n, Auna Operadores de Telecomunicaciones, S.A. konpainiak (hurrengo aipamenetan Grupo Auna) Tenariaren akzioak Grupo Aunaren akzioengatik trukatzeko eskaintza egin zien Tenariako akziodunei, Tenariako kapitalaren %12,115 duen Grupo Aunari izan ezik.

3. 2004ko uztailaren 28an, Grupo Aunaren kapitala zabaltzeko eskritura publiko bat eman zen, eta horretarako 125.427 akzio berri jaulki

ziren. Akzio bakoitzaren balio nominala 60,10 eurokoa zen (7.538.162,70 euro), eta, halaber, akzio bakoitzeko 176,66691077421 euroko prima bat eman zen (22.158.800,62 euro). Kapital-zabalkuntzaren kontrabalioa izan zen, alde batetik, Tenariaren 7.971.341 akzioen diruzkoa ez den ekarpena (bakoitzak 7,50 euroko balio nominala zuen), hau da, bere kapitalaren %80.70, eta, beste alde batetik, harpidedun bakoitzak 845,55 euro eskudirutan ematea, Grupo Aunaren akzio zenbaki oso bat harpidetzeko.

Kapital-zabalkuntza honetan Sodenak Grupo Aunaren 24.090 akzio berri harpidetu zituen, eta kontrabalio bezala Tenariaren 1.531.037 akzio gehi 50,33 euro eskudirutan eman zituen.

4. Horrela, 2004an, Sodena Tenariaren kapitalaren %15,50 izatetik (1.531.037 akzio = 11.482.777,50 euroko kapital nominala, 12.835.595,54 euroko eskuratze kostu historikoa duena) Grupo Aunaren kapitalaren %0,0655 izatera pasatu da (24.090 akzio=1.447.809 euroko kapital nominala + 4.255.905,88 euroko jaulkipen prima + 50,33 euro eskudirutan, 12.835.645,87 euroko eskuratze kostu historikoa duena).

Sodenak Tenarian duen partaidetzaren kontabilitate-balioa

Kapitala	03.12.31	04.07.28
Akzio kopurua	733.232	1.531.037
Partaidetzaren ehunekoa	12,03	15,50
Eskuratze kostua eurotan	6.852.058	12.835.596
Balio-galtzearen hornidura eurotan	3.710.161	6.907.195
Kontabilitate-balio garbia eurotan	3.141.897	5.928.401

Partaidetza-maileguak	03.12.31	04.07.28
Eman diren zenbatekoak eurotan	5.983.542	a)
Balio-galtzearen hornidura eurotan	3.197.034	b)
Kontabilitate-balio garbia eurotan	2.786.508	-

a) 5.983.538 euro, Tenariaren 2004ko martxoaren 1eko kapital-zabalkuntzan kapitalizatuak.

b) 2004ko martxoaren 1ean kapitalaren balio-galtzearen hornidurara aldatutako hornidura.

Sodenak Aunan duen
partaidetzaren kontabilitate-balioa

Kapitala	04.07.28	04.12.31
Akzio kopurua	24.090	24.090
Partaidetzaren ehunekoak	0,0655	0,0655
Eskuratze kostua eurotan	12.835.646	12.835.646
Balio-galtzearen hornidura eurotan	6.907.195	6.907.195 a)
Kontabilitate-balio garbia eurotan	5.928.451	5.928.451

(a) 9.000 milioi eurotan kalkulaturako Equity edo balio likidoaren hornidura, Aunaren akzioen gainean egindako eragiketaren eta data horretan eskura zeuden hainbat txosten eta balorazioen arabera.

Grupo Aunaren salmenta

2005eko uztailaren 29an, Orange, S.A. (France Telecom) enpresak, erosle gisa, eta Endesa, BSCH eta Unión Fenosa enpresek (Grupo Aunaren %83,52ren jabeak), saltzaile gisa, Auna Operadores de Telecomunicaciones, S.A.ren akzioak salerosteko kontratua sinatu zuten.

Data berean, erosle bezala Ono,S.A. enpresak, erosle gisa, Auna Operadores de Telecomunicaciones, S.A. enpresak, saltzaile gisa, eta Endesa, BSCH eta Unión Fenosak, akziodun gisa, Auna Telecomunicaciones, S.A.U.-ren (ehuneko ehunetan Auna Operadores de Telecomunicaciones, S.A.-ren enpresa) akzioak salerosteko eta mailegua subrogatzeko kontratua sinatu zuten.

Salmenta prozesu horren barnean, erosteko eskaintza Grupo Aunako akzio-gutxiengodunei jakinaraztea itundu zen, hauek, hitzartutako baldintza eta akzioko prezio beretan, atxikitzea ala ez erabaki zezaten.

2005eko abuztuaren 5ean, Sodenak Endesaren BSCHren eta Unión Fenosaren eskutitz bat jaso zuen, Auna Operadores de Telecomunicaciones, S.A. eta Auna Telecomunicaciones, S.A.U. salerosteko kontratuei saltzaile edo akziodun atxiki gisa atxikitzeke eskaintzarekin.

2005eko irailaren 30ean egindako bilkuran, Sodenaren administrazio-kontseiluak erabaki zuen aipatu salerosteko kontratuei saltzaile atxiki gisa atxikitzea eta, kontratuak betearazteko, Auna Operadores de Telecomunicaciones, S.A.ren gehienez ere 23.059 akzio saltzea edo transmititzea, kasu bada; beti ere aipatutako kontratuen ondorio ziren prezio, baldintza eta terminoetan.

2005eko azaroaren 10ean, Sodenak France Telecom S.A.-ri Auna Operadores de Telecomunicaciones, S.A.-ren 20.818 akzio saldu zizkion, horren ordez bere aldeko 4.529.655,33 euroko izendun txeke bat jasoz, 217,58 euro akzio bakoitzeko alegia. Prezio hori behin-behinekoa da eta gorantz ala beherantz alda daiteke "ixteko doikuntzaren eta "Auna Telecomunicaciones doikuntzaren ondorioz. Aurreikuspenen arabera, doikuntza horiek 2006ko lehen hiruhilekoan zehaztuko dira.

2005eko ekitaldian Aunaren 20.818 akzio saldu izanaren behin-behineko emaitza.

	Euroak	Euroak akzioko
Aunaren 24.090 akzioren kostua 2005-11-10ean	12.835.646	532,82
Balio-galtzearen hornidura 2005-11-10ean	6.907.195	286,72
Kontabilitate-balio garbia 2005-11-10ean	5.928.451	246,10
20.818 akzioren salmenta prezioa 2005-11-10ean	4.529.655,33	217,58
20.818 akzioren salmentaren emaitza 2005-11-10ean	- 593.729,36	- 28,52

Salmenta honen ondoren, Sodena Auna Operadores de Telecomunicaciones, S.A.ren 3.272 akzioren jabe da oraindik.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurren-

goetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko azaroaren 7an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontselaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, Iberdrolaren balizko kapital-gehikuntzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Iberdrolaren balizko kapital-gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 7ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miguel Izu Beloso jaunak galdera egin du Iberdrolaren balizko kapital-gehikuntzari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariaren erantzuna.

Nafarroako Gobernuak ez du inolako erabakirik hartu Iberdrolako kontseilari delegatuak etorkizunean kapital-gehikuntza egiteko iragarri duen aukerari buruz.

Iberdrolako akziodun izaten segitzeko epeari dagokionez ere, ez da mugarik ezarri konpainia elektrikoan Sodenak duen partaidetza saltzeko.

Eragiketa honekin Nafarroak lortu dituen irabaziei dagokionez, Izquierda Unida-Ezker Batua taldeari gogorarazi behar dizkiogu gure erabakiaren funtsa izan ziren arrazoiak, maiz jakitera eman ditugunak.

Horren haritik, gogoratu behar da Nafarroako Gobernu eta Iberdrola, lehen ere kide izan zirela, Sodenaren bitartez, eta talde energetiko honen lankidetzak horren bereizgarria den energia berriztagarrien sektorea garatzen ahalbidetu zuela foru erkidegoan.

Beraz, Sodena Iberdrolaren kapitalean sartzea Nafarroako Gobernuaren helburu estrategikoen ondorio da. Iberdrola konpainia aitzindaria da, Nafarroan presentzia nabarmena eta eztabaidaezina du, eta foru erkidegoan sektore energetikoaren garapena sustengatu eta erraztu du.

Operazioa Iberdrolak Nafarroako Foru Komunitatearen alde egindako apustuarekin bat zetorren; izan ere, 2002tik 2006ra bitartean elektrizitatea ekoizteko iturri garbiagoak eta teknologikoki aurreratuagoak garatzeko eta horniduraren kalitatea hobetzeko 235 milioi euro baino gehiago inbertitu ditu. Interesek bat egiteak garrantzi berezia du eta

Iberdrolarekin egindakoa bezalako erabakiak hartzen laguntzen du.

Iberdrolan egindako inbertsioa bere osotasunean eta epe luzean aztertu behar da, eskualde bateko jarduera, enplegua, azpiegiturak eta garrantzitsuenak bezalako adierazleak erreferentziatzat hartuta. Energiak abiarazten eta abiaraziko ditu ekonomia guztiak; horregatik, erkidego eta herrialde guztiek sektore estrategiko honen aldeko apustu sendoa egiten dute, hori gabe ezin izanen genukeelako lehiatu, ezta gure gizarteari eta enpresa eta industria sareei behar bezalako laguntza eman ere. Nafarroako Gobernuak ezin da errealitate honetatik kanpo geratu.

Zalantzarik gabe, akziodun izateak indartu du gure harremana konpainia elektrikoarekin dugun

harremana indartu eta bide berri bat ahalbidetu du, konpainiak Nafarroako Gobernuaren iritzia ezagutu eta balioetsi dezan.

Horren haritik, administrazio-kontseiluan egotea ez da horren garrantzitsua; izan ere, hori egonda ala ez, gure ustez garrantzitsuagoa da Nafarroaren iritzia administrazio kontseiluan aintzat hartzea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 2an

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilaria: José Javier Armendáriz Quel

Galdera, errepide sarean gertatzen diren istripuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak errepide sarean gertatzen diren istripuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Helena Santesteban Guelbenzu andreak galdera egin du N-121-A errepidearen trafikoari eta istripuei buruz eta Nafarroako bide sareko gainerako errepideen aldean hartan gertatzen diren istripuen kopuruari buruz. Hona hemen Herri lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna.

1. Zenbat istripu gertatu dira azken hiru urteotan N-121-A errepidean eta zein da horien balantzea?

N-121-A errepidean 2002., 2003., 2004. eta 2005. urteetan gertaturiko istripuen laburpen-taula erantsi dugu. Azken urte horretako datuak urteko lehen sei hilabeteetan gertatutako istripuak dira;

hala eta guztiz ere, hildakoen kopurua 2005eko abenduaren 5era artekoa da.

Ikus daitekeenez, N-121-A errepidean 2005eko uztaila arte izandako istripu kopurua eta aurreko bi urteetakoak oso antzekoak dira eta 2002ko kopurua baino nabarmen txikiagoa.

Hildakoen kopuruari dagokionez, 2005ekoa, aurreko urteetakoekin alderatuta, nabarmen altuagoa izan da, urte horretan Nafarroako errepideen sare osoan gertatu den antzera.

2. Nafarroako Gobernuak ba al du informazio estatistikorik errepide horretako istripu kopurua Nafarroako errepideen sarekoarekin alderatu ahal izateko?

Nafarroako Gobernuak badu informazio estatistiko zabala, landua, prozesatua eta aztertua Nafarroako errepideen sarean izaten diren istripuei buruz. Informazio estatistiko hori ezinbesteko tresna da bide-segurtasuna kudeatzeko, eta gai horren gaineko politikak eta jarduketak garatzeko.

Erantsi dugun barra-diagrama informazio estatistiko horren emaitza da. Hor azaltzen da N-121-A errepidearen arrisku- eta heriotza-indizea, ibilgailuen kopuru osoari eta ibilgailu astunei dagokien antzeko ezaugarriak dituzten interes orokorreko sareko beste errepide batzuekin alderatuta. Faktore horiek erabakigarriak dira indizeak kalkulatzeko orduan.

Hor egiazta daiteke N-121-A errepideak 2002-2005 epean duen arrisku-indizea antzeko ezaugarriak dituzten errepideena baino txikixeago dela. Gauza bera esan daiteke heriotza-indizeari buruz.

Halaber, Nafarroako errepideen sarean gertatzen diren istripuei buruzko "1995-2004 urteetako trafiko eta istripuen azterlana" erantsi dugu.

Zein dira departamentuak esku artean dituen datuak errepide horretan ibiltzen diren ibilgailu kopuru eta motari buruz ?

Ibilgailuen kopuru osoari eta ibilgailu astunei dagokienez, lehenengo laukian eranstean dira erre-

pide hau egunero erabiltzen duten ibilgailu guztien eta kamioien eguneko batez besteko intentsitatearen datuak, 2002, 2003 eta 2004koak, eta 2005. urterako kalkulatzaren direnak.

Iruñean, 2005eko abenduaren 5ean

Herri lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria:
Álvaro Miranda Simavilla

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).


N-121-A ERREPIDEKO ISTRIPUEN ETA TRAFIKOAREN LABURPENA

URTEA	ISTRIPU KOPURUA	HILDAKOAK	ZAURITU LARRIAK	ZAURITU ARINAK	BIKTIMAK	Eguneko batez besteko intentsitatea GUZTIRA	Eguneko batez besteko intentsitatea ASTUNAK
2002	79	10	22	40	72	6442	1335
2003	57	7	13	16	36	6921	1552
2004	57	6	8	40	54	7787	1781
2005	21 ⁽¹⁾	13 ⁽²⁾	12	13	38	8010	1810


(1) 2005eko ekainaren 30era arte izandako trafiko istripuak

(2) 2005eko abenduaren 5era arte izandako hildakoak

**INTERES OROKORREKO ERREPIDEEN ARRISKU INDIZEA
(2002 - 2005 aldia)**



**INTERES OROKORREKO ERREPIDEEN HERIOTZA-INDIZEA
(2002 - 2004 ALDIA)**



Galdera, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko publizitate kanpainei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko publizitate kanpainei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Juan José Lizarbe Baztán jaunak galdera egin du departamentu honek 2004. eta 2005. urteetan egindako publizitate kanpainei buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

– Zenbat publizitate kanpaina eta zer ezaugarritakoak (zenbatekoa, aurrekontuko zer kontusailen kargura, zein enpresaren bidez, euskarrien zer zabalkunderekin, zer hedabidetan, zer edukirekin eta abar) burutu dituzte Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eta haren menpeko erakunde autonomo, sozietate publiko eta instrumentalek 2004. eta 2005. urteetan?

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak eta Ciudad del Transporte de Pamplona, S.A. sozietateak ez dute publizitate kanpainerik egin 2004. eta 2005. urteetan

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 9an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, hegoaldean ur gezatan bizi den *margaritifera auricularia* izeneko bi kuskudun moluskuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak hegoaldean ur gezatan bizi den *margaritifera auricularia* izeneko bi kuskudun moluskuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du "*Margaritifera auricularia*" izeneko bi kuskudun moluskua babesteko neurriei buruz. Hona Inguru-

men, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna.

Ingurumen Departamentuak ba al du planik Nafarroako ibaietatik desagertzen ari den molusku berezi hori kontrolatu, ikuskatu eta zaintzeko?

Margaritifera auricularia izeneko bi kuskudun moluskua mehatxaturiko espezien katalogoan sartuta dago "galzoriko espezieen" kategorian.

2002ko otsailean Natur Zientzien Museo Nazionaleko ikertzaile talde batek eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko teknikariek Nafarroako ureztatzeko ubide nagusietako batean *Margaritifera auricularia* moluskuaren populazio bat aurkitu zuten. Geroztik, 2003ko ekainean egindako hainbat prospekziotan, Ebro ibaian espezie honetako maskorrak aurkitu ziren.

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak 2004. urtetik lankide-

tza-hitzarmen bat sinatua du Centro Superior de Investigaciones Científicas erakundearekin. Horren bidez, Magaritifera auricularia eta beste naiade batzuei buruzko alde zuzeneko datuak lortzeko lanean ari da. Horrela, Nafarroako bi kuskudun moluskuak berreskuratzeko beharrezkoa den oinarriko informazioa lortu da.

Egun, bi kuskudun molusku honi dagozkion lan ildoak ondoko hauek dira:

- *Margaritifera auricularia* eta beste naiade batzuen populazioaren prospekzioak eta jarraipena egitea.

- Bi kuskudun molusku exotikoen balizko inbasioa saihesteko eta hari aurre egiteko eginbeharrei buruz aholkuak ematea.

- Espezie hauek bizi diren ibaietan gara daitezkeen jarduketetan, populazio hauen iraupena bermatuko duten neurriak ezartzea.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 9an

Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, bidezainen etxeak izenekoei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak bidezainen etxeak izenekoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2005eko azaroaren 21eko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko abenduaren 14an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak galdera egin du "bidezainen etxeak" izenekoei buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Etxe hauen balizko lagapenari eta aurreikusitako erabilerrari buruz, bidezkoa da adieraztea, lehen egin den bezala, suhiltzaile eta bidezainen etxeak, hein handi batean, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari eta Lehendakari-tza, Justizia eta Barne Departamentuari atxikita daudela eta haiek erabiltzen dituztela; izan ere, Nafarroako ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legearen 51.2 artikuluari jarraiki, departamentu hauei dagokie etxebizitza horien erabilera. Etxebizitza horiek atxikirik duten erabile-

raren arabera jabari publikoko ondasunak dira eta beraz erabilgaitzak. Horien xedea aldatu eta orain duten erabilerrari uzten ez dioten bitartean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ez du esku hartzerik. Etxebizitza horien erabilgarritasuna mugaturik dago, bestalde, badiarelako funtzionario batzuk etxebizitza horietan bizitzeko eskubidea/beharkizuna dutenak haien araubide juridikoak hala aginduta, eta etxebizitzek xedapen hori betetzea dute atxikirik; beraz, etxebizitzak erabiltzeko edozein ekintza baino lehen erregelamenduzko xedapen hori atzera bota beharko litzateke. Izan ere, ondare higiezin hori besterenduz gero, eskubide horiei erantzuteko beste higiezin batzuk eman beharko litzazkieke, eta horrek ez luke zentzurik. Horren haritik, aipatu behar da, izan daitezkeen balizko eraginagatik, funtzionario horiek lehenetsunez eskuratzeko eskubidea dutela.

Une honetan gaia agertzen den moduan, etxebizitzaren izaera juridikoak ez du aukerarik ematen, galderan aipatzen den bezala, toki entitateei eskualdatzeko, Nafarroako Gobernuaren betebeharra eta eskumena diren interes publikoen zerbitzura daudelako.

Egungo erabilera da, beraz, aipatu interes publikoa asebetetzea, betiere, etxebizitza horien atxikipen bertan behera uzten bada, beren azalera eta kokapenarengatik dituzten aukerak baztertu gabe.

Eskatutako gainerako informazioa ematen duten 14 eranskin gehitu dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2005eko abenduaren 12an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

(Oharra: aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan).

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urtebete 43,95 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »</p>	<p>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA</p>
--	--